Ipuinen tailerra

Seve Calleja eta Antton Irusta

IPUINEN TAILERRA

Labayru Ikastegia
1999
Bilbao

© Seve Calleja eta Antton Irusta

© *Edizio honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1. 48016 BILBAO
Tel.: 944 437 684 - Fax: 944 437 758
E-mail: labayruidazk@euskalnet.net

Egokitzailea: Igone Etxebarria
Azaleko irudia: J.A. Tellaetxe Isusi
Barneko irudiak: "Lumaki" (Haur eta gazte liburuen Euskadiko lehen Aretoari buruzko argitalpen berezia)
eta zenbait marrazkilari eta ikasleren marrazkiak
Fotokonposizioa eta fotomekanika: Ikur, S. A.
Silutegia: A. G. Rontegui, S. A. L.

L. G.: BI-1640-99
ISBN: 84-89816-94-8

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimen barik.

“Lehenago satorrak begiak zeuzkan eta buztanik ez. Egun batean igel bat aurkitu zuen. Igelak buztana bazeukan, begirik ez ostera. Euron gauzok aldatu behar ziztuztela asmoa hartuta, satorra begirik gabe gelditu zen, buztanik gabe igela.”

Azkuek jasoa.

“Haiek han eta gu hemen,
gure ipuinak Flandesen eta Parisen.
Gure txepetxak bizkarrean hezurra,
eta kontatutako guztia,
egia ala gezurra.”

Herri ipuinen amaiera.

AURKIBIDEA

IPUINEN TAILERRA

1. Kontu kontari ipuin tailerrean 9
2. Ipuinen tailerraren nondik norakoak 13
3. Baziren behin ipuinak 21
   Ipuin tradizionalak eta herri ipuinak 23
   Ipuinen bizitza 25
   Herri ipuina eta ipuin literarioa 26
   Herri ipuina 27
4. Sormenerako proposamen eta esperientziak 31
   a) Katea narratiboa 34
   b) Alegiazko ipuinak 45
   c) Zergatien ipuinak 52
   d) Ipuin polinomikoak 65
   e) Herri ipuinak 70
      Ipuin tradizionalak (Idazleak, gaiak eta kontuak) 70
      Hiru ezaugarri nagusi: unibertsaltasuna, iraunkortasuna eta entzutea 71
      Ipuin tradizionalen sailkapena eta tipologia 71
      Ipuin tradizionalen estiloa 72
      Ipuin tradizionalen egitura 73
      Ipuin tradizionalen baloreak 74
      Ipuin miragarrien egitura 75
      Ipuineko funtzioen zerrenda laburtua Proppen arabera 75
      Idazteko proposamenak ipuin tradizionalak lantzeko: ipuinak ikertu, berreskuratu, birsortu eta asmatu 84
      Beste proposamen batzuk 85
   f) Ipuin tailerrerako beste zenbait prozedura 87
   g) Nola sortu ipuinak okerretara (alderantziz) 91
   h) Ikus-entzunezko tailerra 92
   i) Ipuin bat albiste bihurtu. Kazetaritza tailerra 93
   k) Marrazketa tailerra 93
5. Bukaera gisa 97

IRAKASLEENTZAKO GIDA

1. Kontatzeko diren ipuinen ezaugarriak 103
   Zenbait gomendio 104
   Nola kontatu behar den ipuina 104
   Narratzailea 107

2. Euskal folkloretik jasotako baliabideak 108
   Ipuin hasierak 109
   Ipuin amaierak 110
   Zotz egiteko formulak 112
   Igarkizunen hasierak 113
   Esaerak 113
   Jolasak 122
   Sorgin esaldiak 125
   Hatzamarrekin lagundurik errezitatzekoak 126
   Haur kantak 126

Bibliografia 127

1.
Kontu kontari ipuin tailerrean

Garai eta kultura desberdinetan, gizakiok beti kontatu ditugu istorioak, hitzaren edertasunaren bitartez elkarrekin dibertituz eta gozatuz. Hala ere, istorioen narrazioak funtzio sozial ugari bete ditu: hainbat tresna edo bitarteko zelan erabili erakusteko, prozesu teknikoak burutzeko moduak aipatzeko, sinesmen historikoak (hala nola familia, leinu eta herrikoak) garatzeko, zabaltzeko, babesteko eta hezkuntza etikoa errazteko. Gaur egun, jakina, hiri handietan funtzio hauetariko batzuk bizirik daude, eta beste batzuk gehitu egin dira, batez ere, hiriko bizitzan eta haren erakundeen jarduerarekin zerikusia dutenak.

Ipuin Tailerraren asmoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburu orokor guztiak betetzen laguntzea da, baina beste era batera. Ikaslearen hizkuntza-gaitasunak gehitzea da kontua, baina hizkuntzaren alderdi ludikoa eta sormenerako dituen ahalbideak oinarri hartuta.

Ipuinen tailerrean ahozkotasunerako, irakurtzeko eta idazteko zaletasuna piztu nahi da. Ikasleak berak aukeratuta eta berak nahi duelako joko duenez tailerrera, hizkuntzarekin harreman pertsonalagoa izateko aukera izango du.

Aukerako jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

–Sormenaren bitartez eta irudimenak lagunduta ipuinak egin eta esatea.

–Ipuinak kontatu eta idaztea aukera aparta dela konturatzea eta baloratzea.

–Lan-taldean benetan parte hartzea, nork bere ideiak eta sentimenduak jendaurrean adierazteko eta besteen adierazpenak onartzeko izaten diren zailtasunak gaindituta.

–Ipuinak sortzen diren helburu desberdinen eta komunikazio-egoeren arabera, adierazpideak koherentziaz eta zehatz ematea.

Beraz, Ipuin Tailerrean agertzen diren printzipio hauek eta haur eta

gazte literaturak berak, azken finean, zera proposatzen digute: *irakasleok*, maisu-maistrok, *ipuinak kontatzeko artean adituak izatea*, ahozko tradizioa ezagututa, edo haren errepertorioa, izaera, teknika eta funtzioak behinik behin.

Ikasleei irakatsiz eta haien jarrera motibatuz irakasleak betetzen duen eginkizuna garrantzi handikoa da, haien bat-batekotasuna landu eta sormena bultzatzen duelako. Aldi berean, ikaskideen arreta pizteko eta bizitza ulertzeko modu desberdinak ezagutzeko, ikasleek elkarrengana hurbildu beharrak ere irakatsi eta motibatu egiten ditu.

Irakaslearen jarrera, beraz, oinarri-oinarrizkoa da: bateragile, animatzaile, egiten diren lanetan koordinatzaile eta batez ere, ipuinen ekoizpenean laguntzaile izango da, dena aldi berean.

Irakaslea, hortaz, ahozko tradizioarekin lotzen duten kate-begia izatera deitua dago. Ahozko tradizio hau, egun, iragandako garai zaharraren aztarna baino ez da, eta horren aurrean irudia, satelite bidezko komunikazioa, eta audiobisualen inperioa nagusi dira.

Zeregin honek zalantzarik gabe zaila dirudi, baina gure irudikoz, guztiz eskertzekoa izango da. Zailtasun ugari agertuko dira, jakina, hitzak irudiaren sedukzioaren aurrean lehiatu ahal izateko, areago, ipuin kontalarien eredu bizi eta eraginkorra eskasa dugula kontuan hartzen badugu.

2.

Ipuinen tailerraren nondik norakoak

Ipuinen Tailerraren asmoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburu orokor guztiak betetzen laguntzea da, ikaslearen hizkuntza-gaitasunak gehitzea, bi alderdi kontuan hartuta:

–Ulermenaren eta adierazpenaren garapena, ahozko eta idatzizko ereduen eta kontaketa sortu berrien idazketaren bidez.

–Hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko ezagutza hobetzea.

Proposamen honetan oinarrizko hiru kontzeptu agertzen dira: hizkuntza, tailerra eta ipuina.

Hizkuntzari dagokionez, hizkuntza bera nola irakatsi eta nola ikasi behar den pentsatu beharra dugu. Tailerrari dagokionez, ikasleak hizkuntzaz duen ikuspegia zabaltzea lortu nahi da, irakasle eta ikasleen lana bateratu eta hartan oinarrituta. Ipuinari dagokionez, bestalde, egun ikasleek darabilten eredua narratiboa da eta beti daude prest ipuinak entzuteko.

Hizkuntzaren ikuskera ludikoan eta sormenezkoan oinarriturik, Tailer honen bidez ikasleari dakiena sendotzen eta gaitasunetan aurrerapenak egiten lagundu nahi zaio, egin dituen akatsak zuzendu ondoren. Gainera, ikasleak hizkuntzaz duen ikuspegia zabaltzea lortu nahi da komunikatzeko izan ditzakeen gaitasunak hobetzeko aukera eskainiz.

Ipuin Tailerrean irakurtzeko, idazteko eta kontaketarako zaletasuna piztu nahi da, haien bat-batekotasuna landu eta sormena bultzatu.

Narrazioa ikaslearengana gehien hurbiltzen den generoa da. Gainera, ipuina laburra da eta horrek behartu egiten du ikaslea hizkuntza taxuz erabiltzera.

Ipuinak idazteko arreta handiz behatu behar da, era guztietako sentimenduak adierazi behar dira, istorioa ulertu, kokatu, antolatu, entsaiatu, eta abar egiteko behar-beharrezkoak diren elementuak aukeratu behar dira.

Idazketa eta kontaketa prozesu bat denez, beharrezkoa izango da:

–Ikaslea testuinguruaren baldintzez, idaztera bultzatu duen asmoaz eta hartzailearen ezaugarriez jabetzea.

–Sorkuntza-prozesuan ikaslea gutxinaka-gutxinaka gero eta eredu landuagoetara hurbiltzea.

Ipuinen Tailerra sentimenen hezkuntzarako tresna gisa har daiteke. Ipuinetako protagonista gehienak ispilu psikologiko bikainak dira, geure buruari begiratzeko, aurre egiteko, identifikatzeko edo ukatzeko.

Helburuak

Helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea izango da:

1. Sormenaren eta irudimenaren laguntzarekin ipuinak egitea, genero honi dagozkion egiturazko alderdiak kontuan hartuta.

2. Ipuinak kontatu eta idaztea pentsamenduaren heldutasuna eta komunikazioa lortzeko ezinbesteko aukera dela konturatzea eta hori baloratzea.

3. Lan-taldean aktiboki parte hartzea, nork bere ideiak eta sentimenduak jendaurrean adierazteko eta besteen adierazpenak onartzeko.

4. Koherentziaz eta zehaztasunez espresatzea.

5. Nork bere sorkuntzak burututako jarduerak eta lortutako ikaskuntzak kritikoki ebaluatzea.

6. Ipuinetan oinarrituz, adierazpenaren eta dramatizazioaren bidea urratzea.

Edukiak

1. Ipuina: ezaugarriak eta definizioa. Ahozko ipuinetik idatzizko ipuinera.

2. Euskal ipuin tradizionala.

3. Ipuin tradizionaletik ipuin modernora.

4. Ipuinaren tipologia: didaktikoa, fantasia / legenda, beldurrezkoa, zientzia-fizkiozkoa, etab.

5. Ipuinaren egitura, izenburua, narratzailea, diskurtsoaren formak, (narrazioa, deskribapena, elkarrizketa), gaia eta argudioa, espazioa eta denbora, pertsonaiak (motak, protagonistak, antagonistak, bigarren mailakoak), amaiera desberdinak eta ipuinaren mezua.

Prozedurako edukiak

1. Ipuin desberdinen aukera ugari eta adierazgarri bat ozen irakurtzea, espresioa eta ulermena kontuan izanda.

2. Ikasgelan irakurritako ipuinen egitura, edukia, gaia eta mezua antzematea.

3. Komunikazioan esku hartzen duten elementuak aztertzea (igorlea, hartzailea, kodea, testuingurua, etab).

4. Ipuinaren oinarrizko egiturak eraldatzea: ordezkaketa, zabalkuntza, murrizketa, egitura-ordenaren aldaketa.

5. Ahozko eta idatzizko ipuinak sortzea.

6. Jatorri desberdinetako ipuinak biltzea.

Jarrerako edukiak

1. Ikaskuntzan zehar egindako lana baloratu eta errespetatzea.

2. Ipuin tradizionalaren aurrean jakinmina erakustea eta baloratzea.

3. Literatur sorkuntza baloratzea, Euskal Herriko gizartearen errealitatea ulertzeko.

4. Literatur testuak irakurtzeko eta testuak bakarka edo taldean sortzeko zaletasuna izatea.

5. Autoestima garatzea eskolako lanak egitean eta sorkuntzako testuak idaztean.

6. Taldea ideia pertsonalak adierazi eta errespetatzen diren eremu gisa hartzea.

Ebaluaziorako irizpideak

1. Jatorri desberdineko ipuinen funtsezko ezaugarriak eta helburua antzematea, edukia ahoz eta idatziz adieraziz eta egiturari dagozkion elementuak antzemanez.

Testuaren zatiak, garrantzia eta esanahia berezi behar ditu eta ikasleak trebetasuna erakutsiko du ikasgelan landutako ipuinen edukiari buruzko ahozko eta idatzizko laburpenak egitean.

2. Ipuinak sorkuntza-asmoekin egitea, testu narratiboaren lanketa-fase desberdinak kontuan hartuta.

3. Taldean lan egitea eta talde-jardueretan parte hartzea, besteak onartu eta errespetatzeko jarrera erakutsiz.

Ikasleentzako bibliografia

AFANASIEV, A.N: *Errusiako ipuinak*. Elkar argitaletxea. 1991.

ARIZTIA, Mayi: *Amattoren uzta*. Elkar, 1982.

ARRATIBEL, Joxe: *Kontu zaharrak*. Erein. 1995

BARANDIARAN, IRIZAR: *Euskal herriko alegia, ipuin eta kondairen bilduma*. Txertoa argitaletxea, 1989.

BARBIER, Jean: *Ixtorio-Mixterio.* GARRO, BERNARDO "Otxolua": *Ipuin-Mipuinak.* «Sutondoan». Labayru Ikastegia - Bizkaiko Aurrezki Kutxa. Bilbao, 1989.

BENGOETXEA, Xabier: *Euskal ipuinak*. Erein, Donostia, 1995.

CALLEJA, Seve: *Basajauna*. Aizkorri, Bilbo, 1997.
COSEM, Michel: *Euskal Herriko kondairak*. Ibaizabal, 1998.
ELKARLANEAN: *Hamaika Abere-ipuin. Bizkaiko herri-alegiak.* Labayru Ikastegia-Bizkaiko Ikastolen Elkartea. Bilbao, 1997.
ETXEBARRIA, Martin: *Euskaldunen ipuin harrigarriak*. Jakin, Arantzazu, 1973.
ETXEBARRIA, Juan Manuel: *Gorbeia inguruko Etno-ipuin eta Esaundak,* «Laratz»-2, Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbao, 1995.
–*Txorien zoria*. Ibaizabal 1998. «Matxin Salto bilduma».
GRIMM anaiak: *Grimm anaien ipuinak*. Gero, Bilbo, 1990, 2 ale.
HERRIKOIAK: *Ipuin unibertsalak*. Ibaizabal argitaletxea, 1994.
IRUSTA, Antton: *Kontalaria*. Desclee. 1996.
–*Katxin*. Alfaguara Zubia. 1997.
–*Luki barrabasa*. Gero Mensajero. 1998
ITUARTE, Mari Eli: *Mundu zabaleko ipuinak*. Gero, 1991.
LAFITTE, Pierre: "Euskal ipuinak" in *Euskera*, 1974, 160-166 or.
LERTXUNDI, Anjel: *Peru eta Marixe, mila eta bat komerixe*. Erein, 1993.
MARINA, Alga: *Karibeko ipuinak*. Ibaizabal argitaletxea, 1994.
MARTINEZ DE LEZEA, Itxaropena: *Euskal leiendak*. Erein, 1988.
SATRUSTEGI, J. M.: *Ipui miresgarriak*. Gipuzkoako Ikastolen Elkartea, 1979.
–*Axelko eta Otsoko* (abereen ipuinak). Ibid. 1993.

3.
Baziren behin ipuinak

Ipuina eta kanta ditugu gure haurtzaroa inguratzen (eta hala ez bada, izan beharko!) duten bi kultur-adierazpenak. Ahozkotasuna dugu umeak literaturarekin kontaktuan jartzen duen lehenengo zubia, zinez goxo eta, era berean, hezitzailea izan behar duen zubia. Zeinek eramaten du haurra, eskutik hartuta, zubi horretan barrena? *Ipuin-kontalaria***,** kasurako maisua, maistra eta gurasoak edo pertsona zaharrak, tribu zaharretan izan ohi direnak.

Hainbeste bide miresgarri zeharkatzeko lagun izango duen irakurketa bereganatu ostean, haurtzaroan entzun zituen ipuin horien aztarna franko aurkituko bide ditu orain bere irakurketetan. Zergatik? Idazleek ipuingintza tradizionalaren gai eta formulak birsortu eta egokitzen jakin dutelako. Hona hemen zenbait ikerleren esanak:

Walter Benjamin: "Ahoz ahoko esperientzia idazle oro hornitu duen iturria da"; Menendez Pidal: "Idazlerik originalenak bera bizi den kolektibitatearen iraganarekin zor handia dauka".

Izan ere, herriko ipuin tradizionalak narrazio ororen oinarria ditugu, bereziki, ume zein gazteentzat idatzitakoa, nahiz eta denborak aurrera joan ahala, formak aldatuko diren, narratzailea nor den edo eta entzule edo irakurlea nor den. Esanak esan, inork ez du honako hau zalantzan jartzen: literatura guztietan ipuin tradizional, primitibo eta herrikoiak ageri-agerian daude.

Ipuin tradizionalak eta herri ipuinak

Antz-antzekoak direlako seguruen, maiz nahasten diren bi ipuin-mota dira. *Ipuin tradizionala* zera dugu: egile bako sorkuntza kolektiboa, ahoz ahoko transmisioaren bidez, belaunaldiz belaunaldi, herriaren oroimenean

errotu egin dena, lekuak leku, bertsio desberdinetan, "herrikoi" bihurtu dena. *Herri ipuinak*, ostera, ez du zergatik ahozkotasunaren emaitza eta anonimoa izan behar, baina, eta horra hor diferentzia, arrunt egin da, herrian hedatu egin da, atsotitzen, kanten edo eta txisteen modura komunikabideei esker, batez ere liburuari, zinemari eta telebistari esker. *Mickey Mouse* edo *Pinotxo* egun, oso herrikoiak dira, egile ezagunak izan arren, gure ipuin tradizional batzuk baino "ospetsuagoak" dira. Batzuetan, hainbeste zabaldu dira (herrian harrera ezin hobea), ezen *Ahatetxo Itsusia* edo *Berunezko soldadutxoa* bezalako zenbait ipuin Andersen izeneko (abizeneko) egile batenak direla ahaztu egiten baitzaigu. Izan ere, oso maiz, tradizionala eta herrikoa gauza bera balira moduan gordetzen dira, eta autore asko, euren obrak idazteko momentuan, horretaz baliatzen dira.

Literatura unibertsalaren ipuinlari handietatik (Erdi Aroko Hitako Artziprestea, Don Juan Manuel edo Boccaccio) narratzaile modernoetaraino (Oscar Wilde, Horacio Quiroga edo Italo Calvino, ahaztu gabe Pushkin, E.Allan Poe edo Gustavo A. Becquer ipuinlari erromantikoak), denek izan dute haurtzaroan entzundako ipuin zahar eta legendak inspirazio iturri. Batzuetan, narrazio horietako zenbait pertsonaiaz edo argudioz jabetu dira euren istorioa modu pertsonal batean narratzeko. Adibidez, Schiller alemaniarrak Guillermo Tell izeneko suitzar legenda antzerkirako egokitu zuen.

Horrela, Balzac frantziarrak, *Irulea* izeneko ipuina idatzi zuenean, "Ipuina Perraulten erara" azpititulatu zuen, hau da, *Antzinako ipuinak* izeneko argitalpenaren bidez Erpurutxo, Marierrauskin edo Txanogorritxo bezalako ipuin tradizional eta zaharrak oso herrikoi bilakatu zituen idazlearen erara. Gisa berean, Grimm anaiek geroago hartu zituzten ipuin berberak *Etxeko eta umeentzako ipuinak* izenekoen artean argitaratzeko.

Aipatu ipuin tradizional horietako pertsonaiak erraz ezagutzen dira errusiar ipuinetan. Halakoetan Marierrauskinek *Basilia* izena hartu du, *Liponiushka* delakoak Erpurutxo ezagunarekin antz ikaragarria dauka.

Ez al da gauza berdina Walt Disneyk edo Steven Spielbergek Barrieren Peter Panekin egindakoa? Hala bizi dira, bada, herri ipuinak.

Ipuinen bizitza

Ipuin zahar, tradizional eta herrikoi gehienek habia egiten dute umeen gogoan, euren liburu ilustratuetan edo euren pelikula gogokoetan. Hala ere, ez dira horretarako propio jaioak. Antzina ez zegoen umeentzako libururik, umeentzako arroparik ez zegoen bezala. Helduek kontatzen zituzten istorioetako beste entzule bat baino ez zen umea. Dena dela, ipuin horietan bazegoen halako magikotasun bat, halako berezitasun aparteko bat, umeak ipuin horien hartzailerik kuttunenak bihurtu dituena.

Nondik datoz ipuinak, baina? Zergatik antzekotasun hori eskimalen eta afrikarren ipuin baten artean? Tolstoik, ume errusiarrentzat *Mujik-a eta pepinoak* idatzi zuenean, *Esnesaltzailearen* alegia ezagutzen al zuen? Seguruenetik bai, literatura klasikotik edan zuen idazle kultu bat baitzen. Baina Esopo edo Samaniegoren alegiekin hain antz handia duten Ertafrikako tribu baten ipuin tradizionalen kasua? Eta txinatar kultura zahar-zaharraren ipuinen kasua, Amerikako zenbaitekin hain antzekoak?

"Lambtongo sugea" ipuin herrikoi ingelesak zein "Arrantzalearen semea" izeneko kubatar herri ipuinak *Biblia* izan ote zuten inspirazio-iturri?

Mendebaldean bizirik irauten duten ipuin askok Indian dute jatorria.

Indiako kultura, mendeetan zehar, erromatar, judu zein arabiarren bidez heldu zen Europara.

Adibide bakar bat. XIII. mendean, indiar jatorriko *Calila eta Dymna* ipuin-liburua arabieratik gaztelaniara itzuli zen. Aipatu liburua, askoz lehenagotik (grekeraz, latineraz eta arabieraz) hedaturik zegoen oso, eta alegia-egile eta ipuinlari asko haren gai eta argudioez baliatu ziren.

Gai hauek guztiak herrian zabaldu diren neurrian, bertsio eta aldaera ezberdinak izan dituzte egokitzaile edo ipuin kontalariaren arabera, baina ahoz-aho zabaldutako ipuin hauek noizkoak diren jakitea ez dugu egun ahuntzaren gauerdiko eztula gero!

Ezagutzeko aukera norbaitek idatziz jaso dituenetik aurrera baino ez dugu, ahozko tradizioan eta bertsio ezberdinetan askoz lehenagotik bazirela ahaztu barik.

Herri ipuina eta ipuin literarioa

Izenaren jatorria honako hau dugu: kontatutik (computare latinez, hots zenbatu). Gauzak zenbatzetik gertakizunak zenbatzera eta aipatzera aldatu zen. Hasieran egiazkoak, ondoren itxurazkoak. *Espainiar hizkuntzaren Erret hiztegian* hirugarren esanahian, ipuinaren honako definizio hau agertzen da: “jite apaleko eta itxurazkoak diren gertakarien narrazio laburra, helburu moralarekin edo dibertimendurako egindakoa”.

Literatur generoen sailkapen klasikoan, ipuina, eleberriarekin batera, epikako prosaren barruan kokatzen da.

Ipuina hitzak, arazo terminologiko bat dakar, laburbiltzen saiatuko garena. Gaztelerazko narrazio labur zaharra izendatzeko zenbait termino ezberdin (*ipuina* ez da azaltzen horien artean) erabiltzen ziren, honako hauek bereziki:

alegia, enxiemplo, apologo, proberbio, e.a. Aurrerago, *novela* hitza azalduko da (latinezko *nova* hitzaren diminutiboa; italieraz *nuova* eta *novella*, istorio txikia, albiste laburra esan nahi duena), narrazio luzeak ez ezik, laburragoak ere, gaur egun ipuin eta narrazio labur deitzen ditugunak, izendatzeko.

Eleberria idatzitako narrazio laburrak izendatzeko erabiltzera iritsiko da, ipuinak, jite herrikoi eta ahozkotasunaren eremuko narrazio laburrak zein txiste, anekdota, atsotitz eta antzekoak izendatuko ditu. Geroagoko garaietan, eleberria idatzitako literatur narrazio luzeetarako bereizi da.

Erromantizismo garaian, ipuina herri, fantasia edo legenda kutsudun narrazioak izendatzeko erabiltzen da, prosaz nahiz bertsoz egindakoak; nahiz eta *legenda, balada* eta antzeko terminoak narrazio mota horiek izendatzeko ere erabiltzen ziren.

Hona hemen gaurko egoera: narrazio laburra izendatzeko bi termino bereizi erabiltzen dira, *ipuin literario* eta *herri ipuina*; *eleberri laburra*, ostera, eleberria eta ipuin literarioaren arteko narrazioari esaten zaio.

Herri ipuina

Herri ipuina folkloreari dagokio, hau da, "herriaren jakituria tradizionalari", eta hor ipuina ezezik usadio eta ohiturak, dantzak, kantak, e.a. ere sartzen dira. Folklorearen barruan, literatura herrikoi eta tradizionalaren esparruan kokatzen da, kopla, erromantze eta soka bereko kultur adierazpenekin batera.

Herri ipuina tradizio batean jaio eta garatu eta ahoz aho zabaltzen da. Garaiotan, mintzoaren indarra eta izen onaren parte bat galdu egin da, baina mila urtetan, hitza izan da trasmisio tresna bakarra, eta oraindik orain, leku askotan hala da.

Herri ipuina anonimoa da. Inoiz sortzaileren bat izan zuela ukaezina den arren, komunitateak ipuina bere egitearekin batera sortzaile haren izena ahaztuta gelditu da. Komunitatea ipuinarekin identifikatu egiten da, haren partea sentituz, eta ostean herri-ondasun bat bilakatu da.

Tradizioaren ibilbidea zeharkatu ahala, batik bat ahozkotasunagatik, ipuinak belaunaldiz belaunaldi bertsio ezberdinak izango ditu, beti ere erreferentzia (zentzuaren haria, bizkar-hezurra) beretsuari eutsiko dion arren. Tradizio etniko eta kulturalak markatu egiten du ipuin bakoitza, ipuin kontalari bakoitzak egingo duen gisa berean.

Herri ipuinen jatorriaz asko idatzi da. Labur-labur esanda, honako hipotesia plazara daiteke: jatorria bera izango zen hasieran, ostean zabalkundea eta geroago mailegutze-prozesu bat. Beste teoria batek zera diosku: jatorri anitza, leku eta denbora desberdinetan sorrera bana duela gisa-sentimendu eta bateratzen dituena pentsamenduaren berezko batasunaren printzipioan oinarrituko litzateke.

Teoriak teoria, bi aditu ospetsuk, Aarne eta Thomsonek, mundu osoko herri ipuinen motak ikertu ondoren baieztatu dituzte gai nagusiak errepikatu egiten direla antzinako narrazioetan –indiarretan bereziki– eta gaurkoetan, leku oso desberdinetan gainera. Roger Pinoen arabera, herri ipuina ez da inon ez inoiz kokatzen. Gaia heroi baten inguruan ematen da –behinik behin ihesean dagoena– eta heroi horrek etsai edo eta eragozpen askori aurre egin behar izaten die, azkenean beti garaile ateratzeko.

Ipuinetako pertsonaiek ez dute ezaugarririk (izaerarik, nortasunik). Tipo eskematikoak dira, hots, edo erabat onak edo erabat gaiztoak. Ez dute barne-bizitzarik, eta kasualitate magikoaren arabera jokatzen dute.

Estiloari dagokionez, honako ezaugarriak izaten dituzte: gauzak izen-

datzen dira, baina deskribatu gabe; esamolde ugari dago (hasieran, bukaeran zein gainerako tarteetan), antzeko egoerak ia mekanikoki errepikatzen dira; istorioa poliki-poliki garatzen da, eta batzuetan episodio anitz azaltzen badira ere, bata hurrengoaren prestatzailea da beti. Ekintza nagusi dela kontuan harturik, errazki ulertzen dira deskripziorik eza edo eta, jada, lehenago aipatu dugun karakterren eskematitazioa, e.a.

Herri ipuinaren forma, luzapenik gabekoa, labur gurakoa eta azkarra izateaz gain, beti sinple eta zuzena dugu, inolako artifiziorik gabekoa.

Herri ipuinak hiru helburu izango lituzke. Lehena gizakiak dituen gaitasun eta beharrak hasetzea jakinmin, ebasio, fantasia eta emozioen arloan. Bigarrena didaktikoa, hau da, ahoz ahoko narrazioaren bidez, bizitzaren edozein alderdirekin zerikusia duen zerbaitez irakaspen bat ematea, eta azkenik, hirugarren helburua, entzuleak herriaren ondare kulturalean sartu eta harekin lotzea.



4.

Sormenerako proposamen eta esperientziak

Azalpen teorikoak oinarri batzuk eman dizkigu, gero horiekin azterketa egin ahal izateko eta, aldi berean, horrekin ipuin tradizionalen jokabideari buruz ikasitakoa praktikan ikusi ahal izan dugu. Baina duda barik, idazmenean ikusiko dugu ondoen, beti ere idazmena fabulazio joko legez hartuta, ikasleek ikasitakoa eta, batez ere, bere sormen gaitasuna eta aberastasun espresiboa praktikan jartzeko duen motibazioa eta interesa; imitazio eredu denez gero, literatur lanak berak piztutako interesa. Plagioak, lanarekin olgetea, desmitifikatzea, pizgarri izango dira umeentzat fabulazio lanean.

Idazmena irakurketatik banaezina da eta zuzenean edo zeharka argi erakutsiko du ikaslearen hizkuntza gaitasuna. Eta hortik aurrera, Hizkuntza eta Literaturako irakaslea, ikaslearen gramatika ohiturak zuzentzen eta birmoldatzen hasi ahal izango da. Izan ere, hortxe ulertuko dira ondoen planteamendu gramatikalak: ikasleak idatzitakoari zuzenean aplikatuta. Hala, hizkuntza gaitasunen didaktikari dagokionez, sormena bultzatzeak lehentasuna duela iritzi diogu. Are gehiago "testuen tailer" baten ikuspegitik.

Ipuinen munduan murgilduta, hasi gaitezen alegiazko kontakizunak asmatzen, lehenengo eta behin egitura narratibo oinarrizkoenak erabiliz.

Metodoa hauxe izan daiteke:

1. Liburu batetik testu bat hartu eredu legez.
2. Ikasgelan egindako eredu edo adibideak.
3. Guztien eskura dauden irakurgaiak.

Hala, proposatutako eredua idatzizko sormenaren jarraibide izango dugu. Gero, eskola umeentzat dauden literatur lan guztietatik, batzuk aukeratuko ditugu irakurtzeko, hain zuzen ere, egindako esperientziatik lortu ditugun idazlanak obra horiekin konparatzeko.

KATEA NARRATIBOA

Irakurketa bultzatzeko batzar eta ikastaroetan inoiz parte hartu dutenen artean, duda barik, "katea narratiboa" da, aldaera guztiekin, fabulazio jokorik ezagunena eta erabiliena, eta gero, jokoa ikasgelara eroaten dute. Horregatik, eta itxura batean joko narratibo oso oinarrizkoa izan arren, eskolako fantasiari aukera gehien ematen dion jolasetariko bat da.

Diskurtsoaren sekuentziak kateatzea Rodarik bere *Gramatika*-n aipatzen duen "jolas zaharren" artean dago. Horietarikoak dira, esate baterako, egunkarietako titular-zatiak erabiliz edo galdera-erantzunak dituen papertxoekin egiten diren jolasak. Oraingo honetan rodarizalea izatea bere moduko Bretonzalea izatea da; hau da, ulertzea idazketa berezko jarioa dela, ez dela ahaleginik egin behar, eramaten utzi baino ez, eta hala aurkituko dugu zoria dela miresgarritasunaren bidea eta paregabeko irudiak sortzen dituena. Hala, surrealismo frantsesaren aitak defenditzen zuen idazketa automatikoa bide asko zabalduten dituen fabulazio jolas entretenigarri bihurtu daiteke ikasgelan.



André Breton-entzat adimena lo-suman zegoela sortutako esaldiak balio handikoak ziren. Horregatik bere jarraitzaileekin egiten zuen tertulia poetikoetan, aldrebeskeriazko jolas antzeko bat erabiltzen zuen: tertuliakide bakoitzak esaldi baten berba

bat idatzi behar zuen, erreferentziatzat kategoria gramatikal jakin bat baino ez zuela, eta esaldia osorik ezagutu gabe. Jolas poetiko hartatik 1919an irten zuen lehenengo esaldia ospetsu egin zen:

Gorpu	gozoak	ardo	berria	edaten	du
1	2	3	4	5	

Ikus daitekeenez, hortik datorkigu jolas honetako izenburua: “Gorpu gozoa”.

Hain izan zen ospetsua esaldia ezen, gaur egun “gorpu gozoa” legez ezagutzen dugu jolas hau. Eta jolas horretatik abiatu zen Rodari itaun eta erantzunen proposamenerako:

“Gorpu gozoa”
(Idatz-Jolas bat narrazio egiturak lantzeko)

Ondoren Gianni Rodari pedagogo, haurren irakasle eta, batez ere, idazle italiar ospetsuak Bretonen ideiari helduta bere ikasleentzako jolas berri bat asmatu zuen.

“Bata bestearen hurren dauden gertaerei, hau da, narrazio bati forma ematen dion itaun-erantzunen serie batetik abiatzen gara:

1. Nor zen?
2. Non zegoen?
3. Zer egiten zuen?
4. Zer esan zuen?
5. Zer erantzun zuen jendeak?
6. Zelan amaitu zen dena?

Taldeko lehenengoak lehen itaunari erantzun eta papera tolestuko du erantzuna inork irakurri ez dezan. Bigarrenak bigarren itaunari erantzun

eta, honek ere, papera tolestuko du. Eta hala hurrengorik hurrengo itaunak amaitu arte". (*Gramatika*, 10, 47. or.)

Berak dioenez (eta adibide honekin erakusten digu: *"Hildako batek / Pisako dorrearen gainean / josten zegoela / esan zuen: "zenbat dira hiru bider hiru?" / jendeak abesten zuen: "Poronponpero" / "amaitu zen hiru zero"),* kontakizunak ia beti zentzugabekoak izaten dira. Eta Rodarik dio: "Erantzunak irakurri egiten dira, barre egin, eta horixe da dena. Edo, osterantzean, lortutako egoera aztertzen da bertatik istorio bat ateratzeko".

Italiarraren proposamenak –berez da ariketa ludikoa– fabulaziorako bide bat zabaltzen digu, "testuaren sintaxia" eskaintzen digu, hau da, egitura narratibo finkoa. Horregatik azkenengo esaldia azpimarratu gura dugu: "bertatik istorio bat ateratzeko".

Ikasleak, beharbada, ezagunak izango ditu kazetaritzako berrien oinarrizko egitura diran "5 W"ak, eta orain, kontakizunaren egitura zelangoa den bere kabuz aurkitzeko aukera dauka; izan ere, ohiko testu azterketak egin behar dituenean ikaslearentzat egitura kontzeptu abstraktua da-eta. Rodarik, jolasaren bitartez, historia guztiek aldamiajeak dituztela erakusten du, eta horrek kontakizun "landuagoak" asmatzeko bidea ematen du.

Proposamena oso erraza da berriro ere: ikasgela bost (edo sei) ikasleko taldetan antolatuz gero, istorio zein baino harrigarriagoak sortuko dira. Istoriooi, ozen irakurri ahala, izenburua ipiniko zaie eta guztietatik taldearentzat erakargarriena dena aukeratuko da, normalean harrigarriena, ausartena eta ilogikoena.

Gero, erabakitako izenburuarekin, eta ereduaren erreferente berberekin (pertsonaiak, lekuak, ekintza eta amaiera) norberak ipuin oso bat egin beharko du; eta, erreferentziko kontakizuna bozetoa baino ez da izango.

Umeentzako jolasetan gertatzen den legez, "katea narratiboa" ez da pro-

posamen berria; berria izango da irakasle animatzaileak ikasleen taldeko espresio eta ezaguera mailara egokitzen duen neurrian, eta, zelan ez, ikasleek, motibatuta sentitu eta eskolako esperientziak erabiltzen dituzten neurrian. Emaitzen erakusgarritzat, didaktika ikastaroan parte hartu zuen irakasle baten kontakizuna aurkeratu dugu, eta "aldamiaje"tzat eurek landutako eta aukeratutako eredu berbera:

Irakasleak sortzen dituen kontakizunetan hasierako bozetoari lotzeko joera dago ageri-agerian, eta bertako sekuentzia literalak egoki erabiltzen ditu. Ikasleen lanetan, ostera, ez dago halako loturarik, asmatzeko gaitasunari bidea libre uzten diote, hasierako aldamiajea alde batera utzi arteraino. Hemen bozetoa benetan erabili behar zen moduan erabili da: fabulazioaren aitzaki moduan, eta fabulazioari beharrezkoa duena bakarrik emanez: motibo nagusia. Seguru asko, Rodarik PIANOA-ILARGIA binomio fantastikoa bihurtu izango zuen. Gure zazpi urteko alegiagileak lotura narratiboa egin du proposamenarekin eta, aurreko ipuineko egilearen moduan jokatu du. Haren egileak ere, kate narratiboa maiteen dituzten heroiak bere istorio partikularrean sartzeko bidea izan du. Heroiok telebistaren izpilu izugarrian azaltzen direnetakoak dira, izan ere, duda barik hau da-ta "binomio", "katea narratibo", alegiazko ipuina... eta era guztietako erreferente ludikoen iturririk aberatsena. Oso garrantzitsua da irakasle animatzailea gai izatea heroi horiek, iragazkitik pasatuta, ikasgelara eramateko.

Fantasiazko Gramatika izeneko liburuan Gianni Rodarik ederki azaltzen digu zertan datzan katea narratiboa lantzeko prozedura.

Hauexek dira irakasleek proposatutako galderak:

1. Nor zen?
2. Non zegoen?
3. Zer egiten ari zen? (edo zertan zegoen?)

Hona hemen pausuz-pausu:

1. Ikasleak taldeka jarriko dira (5 edo 6 ikasle talde bakoitzean). Beraz, 5 edo 6 talde sor daitezke ikasgela batean.

2. Ikasle bakoitzak dagokion taldean bertan zenbaki bat aukeratuko du (batak 1 zenbakia, besteak 2, hurrengoak, 3, etab.).

3. Irakasleak galderak ozenki idazten dituen neurrian, taldeetako kideek bakoitzak bere zenbakiari dagokion galderari erantzungo diote, eta banan-banan orri batean idatziko dute euren erantzuna, baina arreta handiz, aurrekoek edo ondokoek ikusi ez dezaten bakoitzak zer idazten duen.

4. Erantzuna idatzitakoan, orria tolestuko du hurrengoari pasatu baino lehen. Gauza bera egingo du ondorengoak berari dagokion galdera erantzun ondoren.

5. Bide horretatik, talde bakoitzak ipuintxo bat garatuko du, ondoren ozenki irakurtzeko. (Zentzurik gabeko ipuinak eta, askotan, barregarriak izango direla konturatuko gara).

4. Zer esan zuen?

5. Zer erantzun zioten?

eta 6. Nola amaitu zen dena?

Oharra: 2. eta 3. galderak batu ditzakegu, taldeak bostekoak izan ahal izateko.

Galdera guztiak erantzun eta elkarrekin irakurri ondoren, imajinatu dezakegu zer nolako ipuinak sor daitezkeen: zentzurik gabekoak, logika gutxi dutenak..., baina dena den, guztiz dibertigarriak. Gero ipuin bakoitzari dagokion izenburua jarriko genioke.

Baina ez badugu jolasa amaitzerik nahi, idazten jarrai dezakegu. Horretarako, denon artean ikasgelako istoriorik politena, barregarriena edo... aukeratu dezakegu (izenburuz izenburu hautatuz).

Ahor zenbait adibide atal honi dagokionez:

1. Bazen behin mutiko bat beti edan eta edan egiten zuena.

2. Ilargian hegaz egiten.

3. Eta neska-mutilekin jo eta ke zebilen.

4. Aizu, motel! ekarriko al didazu ontzi bat ur?

5. Azkenean denak hil ziren.

(DBH 4. mailako talde batek asmatua)

OSTIRALEKO PARANOIA

1 Bazen behin mutiko bat beti edan eta edan egiten zuena. Egia esan, ez zen ohikeria soil bat edateko kontu hori; mutilaren iritziz edateak amets eta egoera zoriontsu eta miragarriak bizitzera bidaltzen omen zuen.

Berak zioenez, ohiko errutinari eta eguneroko bizimodu aspergarriari uko egiteko edo, beste modu batera esanda, ihes egiteko modua zen hura.

Behin, 2 Ilargian hegaz egiten zegoela imajinatu zuen. Satelite misteriotsu hartatik bueltaka, grabitatearen indarrik gabe flotatzen zebilela sentitzen zuen. Flotatzen zihoan bitartean, 3 bere neska lagunekin musuka omen zebilen.

–Hau bai zirrara atsegina! –zioen bere barnetik mutilak.

Ilargiko taberna antzeko batera ailegatu zirenean, mutilak barraren atzean zegoen estralurtar bati zera esan zion:

4 Aizu motel! Ekarriko al didazu ontzi bat ur?

–Nola eskatzen didazu ontzi bat ur? –erantzun zion gizon antzeko hark–. Ez al dakizu hemengo bizidunok ez dugula "ur" delako hori fabrikatzen lurtarren edaria delako? Ez al dakizu lurtarrek ezin dutela gure lurraldera etorri? Gure lege-kodeak agintzen du hori, eta bere aginduz, ilargian aurkitzen ditugun lurtar guztiak deusestatzea dugu betebehar nagusia, beraz, Ra, Ta, Ta, Ta, Ta, Ta !!!

Ilargiko gizonak arma bat atera eta mugimendu arraro bat eginez, bai mutila baita bere neska laguna ere hil egin zituen, akabatu.

Hurrengo goizean, gure mutila altxatzerakoan, aurreko gauean izandako amets gaiztoaz gogoratu zen. Hura bai mozkor jasanezina!

Egun hartatik aurrera, mutikoak ez zuen sekula santan tragu gehiagorik hartu."

Zaloa Goiri Virto (DBH 4. mailakoa).

PERRETXIKOTAN

Ba zen behin ardi txiki bat mendian artalde batean bizi zena. Udaberria zenez, hau da, perretxikoen sasoirik aproposena, bere artaldetik urruntzea erabaki zuen perretxikoak jateko gogoa asetzeko asmoz.

Bidetik zihoala Basajaunarekin topo egin zuen eta hark ea nora zihoan galdetu zion. Ardiak kontatu egin zion artaldean ez zeukala lagunik eta perretxiko bila joateko aitzakiarekin, lagunen bat aurkitzera zihoala.

Basajaunak, hunkitu eta, bere etxera joatera gonbidatu zuen. Basajaunaren semea etxean zegoen eta ardia ikusi bezain laster, maiteminduta geratu zen berarekin, eta ea berarekin ezkondu nahi zuen galdetu zion. Ardiak baietz erantzun zion.

Bat-batean Basajaunak esan zion semeari euren artean debekatuta zegoela kanpotar batekin ezkontzea, eta ardiak, hori entzutean, mindu egin zen eta berehala erantzun zien bera ez zela kanpotarra, bertakoa baizik.

Basajaunak hori entzundakoan zorabiatu egin zen eta zerraldo erori zen. Ardia eta Basajaunaren semea pozik geratu ziren Basajaun aitaren oztoporik gabe.

Ezkondu zirenean perretxiko bila joan ziren eztei bidaian. Perretxiko pozoitsuak jateagatik hil ziren ondoren; hala ere beraien munduan zoriontsu izaten jarraitu zuten."

(Iraleko irakasle talde batek idatzia)

1. *Bazen behin ardi txiki bat.*
2. *Perretxikotara zihoan.*
3. *Norbaitek perretxiko bila mendira joango zela esan zuen.*
4. *Ni ez naiz kanpotarra, hemengoa baizik.*
5. *Ezkondu egin ziren eta oso zoriontsu bizi.*

ATSO ITSUA

Behin bazen mendi batean bizi zen atso itsu bat. Atso hura mendi tontorrean bizi zen bere ilobarekin. Ilobak Mikel zuen izena. Mikelek atsoari asko lagundu behar izaten zion: arropa garbitzen, janaria egiten... Horregatik Mikel oso mutil heldua zen.

Mikelen eskola mendiaren bestaldean zegoenez, hogeita bost bat minutu behar zuen bertara joateko.

Atsoak arazo bat zuen, ordea: pastelak jaten zituen etengabe; horregatik "kolesterola" oso altu zeukan. Mikelek behin eta berriz errepikatzen zion pastelak jateari utzi behar ziola, baina atsoak ez zion kasurik egiten.

Mikel, goizero bezala, eskolara joan zen bere motxila eta futboleko baloiarekin. Egun horretan, gizarteko azterketa zeukaten. Mikelek azterketa oso ondo prestatua zeukan.

Arratsaldeko bostak inguruan heldu zen Mikel etxera. Amonak pastelak jaten zihardu en eta Mikelek, orduan, amorru handiz pastelak hartu, kutxa batean sartu eta armairu barruan sartu zituen.

Biharamunean bere amonak...

–Jainkoarren! Armairu barruan dago –esan zuen larri.

Orduan Mikelek etsi egin zuen bere amonarekin. Orduz geroztik, pastelak jaten utzi zion amonari. Tartean, gure Mikel eskola laga eta eskale bihurtu zen. Eskolara oso gutxi joan ohi zen; egun batean Ipuinen tailerreko maisuak esan zion gehiago ikasi behar zuela, bestela ez zuela kurtsoa gainditukо, ipuinen tailerrari zegokionez.

Mikel oso haserre zegoen maisuak esandakoarengatik, orduan etxera bueltatu zen arineketan. Bere amonak pasteletan xahutu zituen berak aurreztutako azken txanponak.

1. Behin bazen mendi batean bizi zen atso itsua.

2. Pastelak jaten zituen etengabe.

3. Jainkoarren! Armairu barruan dago –esan zuen sarri.

4. Gehiago ikasi behar zuela erantzun zioten, bestela ez zuen kurtsoa gainditukо, ipuinen tailerrari dagokionez.

5. Hiltzailea atzeman zuten, ondoren giltzapetu eta gaur zaharraren zaharrez kartzelan bizi da.

Mikel zoratuta zegoen, pistola hartu eta bere amona buruan bi tiro emanez hil egin zuen.

Hogeita bost urteren buruan hiltzailea atzeman zuten eta giltzaperatu. Egun, zaharraren zaharraz kartzelan bizi da.

Iñigo Blanco DBH 1. mailako ikaslea.

Eredu berarekin egindako beste adibide bat

Bazen behin mendi batean bizi zen atso itsu bat. Egun batean, bere bilobak bisitatzera joan ziren. Gurasoak ere joan ziren, baina oso serio eta haserre aurpegia zuten. Gozokiak atera zituzten mahaira, eta atsoak pastelak jaten zituen etengabe. Zarata bat entzun zuten eta denak isildu ziren. Goiko pisutik zetorren. Ama igo zen eta bat-batean norbaitek eskutik heldu zion eta armairura sartu zuen. Aita, korrika igo zen eta armairuaren atea irekitzerakoan, hauxe izan zen erreakzioa:

–Jainkoarren! Armairu barruan dago! –esan zuen larri.

Orduan konturatu zen hilda zegoela ama. Ez zien ezer esan umeei eta hurrengo goiza heldu zen.

Ikastolan andereño eta maisuak errieta egin zioten umeari, gehiago ikasi behar zuela erantzun zioten, bestela ez zuen kurtsoa gaindituko, ipuinen tailerrari zegokionez.

Egun berean, arratsaldean, aitak hilketa salatu zuen; hiltzailea atzeman zuten, giltzaperatu eta, gaur egun zaharraren zaharrez bizi da kartzelan".

(Lexuri López, DBHko 2. mailako ikaslea)

Aurrekoaren beste adibide bat.

Istorio hau haizeak kontatu zidan, basoko belardi batean, izarren artean, lotan nengoen gau hartan.

Behin bazen mendi batean bizi zen atso itsu bat. Ikusi ez arren suaren ondoan gau guztietan istorio polit batzuk kontatzen zizkigun.

Egun batean, beti bezala bere etxera joan ginen. Etxera sartu ginenean, atso zaharra pastelak jaten ari zen etengabe. Oso arraro iruditu zitzaigun ez zuelako inoiz pastelik jaten, baina, hala ere, gutariko inork ez zuen ezer esan.

Pastelak bukatu ondoren, aulki batzuk su inguruan jarri eta bertan jesarri ginen itsuaren istorioak entzuteko.

Egun hartan beldurrezko istorio bat kontatzen ari zela, bat-batean Jokin falta zela konturatu ginen. Atsoa oso jakintsua zen eta minutu batzuk pasatu ondoren, armairuaren ondora joan eta atea ireki zuen.

Armairuaren barruan zegoen Mikel, bi pastel eskuetan zituela. Maitanek ikaraturik, oihu egin zuen:

–Jainkoarren! Armairuaren barruan dago –esan zuen larri.

Irten zenean bronka itzela bota genion ez zela berriro etorriko esanez.

Hurrengo egunean, ohetik jaiki nintzenean, nire amak Xabierri bronka botatzen entzun nion, gehiago ikasi behar zuela, bestela ez zuen kurtsoa gaindituko, ipuinen tailerrari zegokionez, behintzat.

Ondoren egongelara joan nintzen eta telebista piztu bezain laster, teleberrian albiste interesgarri batzuk ematen ari ziren. Haietako batek honela zioen:

–"Hiltzailea atzeman zuten, giltzaperatu eta gaur egun zaharraren zaharrez kartzelan bizi da".

Ondoren, orain dela 50 urte kartzelan sartu zuten hiltzailearen argazkia erakutsi zuten, eta ikaratuta gelditu nintzen, istorioak kontatzen zituen atso itsuaren argazkia baitzen.

Gosaldu lasterka bizian, aurpegia garbitu eta arin batean abiatu nintzen lagunen etxera gertatutakoaren berri ematera.

Harrezkero ez ginen atsoaren etxera bueltatu. Urteak joan eta urteak etorri, atsoa hil egin zen eta ni izendatu ninduen haren irabazien primu.

Sinetsi nahi duenak
berehala bertara joan
eta ikus dezala.
Neuk diotsuet hau egia dela,
gari heldua berdea ez den bezala.



ALEGIAZKO IPUINAK

Gaur egun umeentzako liburuetan hain sarri agertzen den irudi grafikoa ez ei da mesedegarria irudimenarentzat, itxura denez fantasia mugatu egiten du, Dora Pastorizak dioen legez, "irudimen sortzailearen jardun askea, sortze funtzioa mugatuz". Baina onartu egin behar da baita irudi batek edo irudi multzoak adimena iratzartzeko duen ahalmena. Eta traslazio, egokitu eta birsortzeko jolasetan, iruditan emandako kontakizunetatik testu narratibo iradokitzaileak egin daitezkeela. Hala bada, irudi eta berbak, bateraezin baino gehiago, osagarri bihurtzen dira.

Ondo jakina da, umearentzat irudia oinarrizko espresio sistema dela eta, geroago konturatzen dela ideiak berben bitartez emateko aukera dagoela; oraindik irudiari lotuta dauden hitzen bidez.

Aztertu dezagun idazketaren prozesuaren gainean umeek egindako gogoeta hau: "Testua egiteko, orria hartzen da, irudia egiten da, eta ondoren ikurrak egiten dira. Gero, hizkiak, eta hauek, inprentan ipintzen dira eta egin egiten da eta gero liburuan jartzen da".



Ohartu gaitezen "irudia egiten da" narrazioaren prozesuko lehenengo pauso legez agertzen dela.

Francesco Tonuccik, *Viaje alrededor de "El Mundo"* (Laia, Bartzelona, 1881) liburuan, Mario Lodiren esperientzia didaktikoen gainean egindako egunkari ospetsuenetariko bat aukeratu eta komentatzen du. Mario Lodik egunkari horretan oinarrizko eskolari buruzko iritzi eta inpresioak bildu zituen 1977tik 1979ra bitartean. Liburuan irudia aipatzen du, izan ere, Lodik jardun ludiko eta sortzaile bihurtu zuen irudia bere ikasleentzat: "Irudietatik kontakizunak, antzerkirako gidoiak eta liburuak sortzen ziren, eta gainera, kontakizunak komentatzeko, eszenak ilustratzeko (...) balio zuten. Irudia ez zen "librea" eta baliogabea, beharrezkoa baino; irakurtzea, idaztea edo kontuak egitea bezain beharrezkoa.

Planteamenduok, ikusten denez, oinarrizko mailatatik ateratakoak dira, eta euron inguruan jarri gura dugu geuk ere; hain zuzen ere, irudi grafikoa proposatzeko –marrazkiak edo argazkiak– kontakizunak sortzeko eragile legez aurkezteko.

Zalantzarik gabe, alderantzizko prozesua ezagunagoa dugu. Horregatik, literatura tailerretako praktiketan sarriago aurkitzen dira idatzizko testuak ilustratzeko proposamenak.

Ilustrazio hori egiteko teknikak hainbat dira: batzuetan dauden irudiak erabili izan dira (ebakinak, kolageak); eta beste batzuetan, ostera, eredu literarioak topatu eta imitatu izan dira, idatzia plastikoki birsortuz letrismoa, ikusteko poesia edo kaligrametan esaterako. Ikusi dezagun zelan lortu daitekeen "alegiazko ipuina" argazki sinple batetik abiatuz. Horretarako, aukeratu ditzagun ikaslearentzat ezagunenak diren irudiak: tebeo edo komikietako binetak.

a. Mila berba eragiten dituen irudia

Behekoaren moduko ebakin sinple bat, egunkarietan argitaratzen diren komiki-tiretariko batetik hartua, nahikoa izan daiteke, behin otartekoa irentsi ostean, irudimenean hainbat esaldi asmatzeko.

Ikasle bakoitzak, irudigilearekin batera gidoilari bihurtu eta burura etorri zaiona kontatzen du. Gero, elkarrekin erkatuko dira, bai irakurriz bai arbelean idatziz.

Adibide legez BBBko 1. mailako talde batenak bildu ditugu eta baita didaktika ikastaroan parte hartu zuten irakasle batzuenak ere:

(Ikasleak)
–Ze irakurle txerria, adurra dariola dago!
–Berriro ere kendu dute ura!
–Itogin hauekin ilea kiribilduko zait!
–Xebe!, itzelezko euritea egingo zuela Iparraldean, e?
–Goikoak berriro itsasontzien jolasean olgetan.
–Atso horiek..., seguru “Goenkale” ikusten daudena.
–Bigarrenekoak berriro ere hil du emaztea.
–Nik uste nuen amets hezeak beste gauza bat zirela.
(Irakasleak)
–Hartu ala urtegira bialduko dut?
–Amaitu dira ur-murrizketak, azkenean hil honetan dutxatu egingo naiz!
–Ene Jesus! ura eskatu nizun, ez Espiritu Santuaren bitartekotza.

IRUDI ZERRENDA

Irudiak zehatzak ez direnean gero eta errazagoa izango da irudimena landu ahal izatea.



Aukera dezagun oinarrizko istorio bat.

Lehen bineta. Bai, ez zaizkit zeure oinetakoak gustatzen, ezta zure frakak ere.

Bigarren bineta: Ezta zeure jateko era, ezta zure liburuak ere.

Hirugarren bineta. Ez ditut gogoko zure autoa, ezta zeure inportazioko gaztak.

Laugarren bineta. Beraz, ez zara nire gustuko!

Bosgarren bineta: Uf! Azkenean badakit nola gainditu nire lotsa.

Egun beretsuetan eta Euskal Herriko egunkari bat kontuan hartuz egin ziren, eta argi dago, lehortea eta murrizketak hainbat bider aipatzen direla. Dena dela, taldean egindako irakurketa batek argi erakusten digu konfabulazio askearen lehenengo ezaugarria: irakurle beste "kontakizun" daude, eta denak desberdinak, denak irudi sinple batetik atera diren arren. Bestetik, "katea narratiboan" erantzun bakoitzeko izaten zen "harridura", kasu honetan, narratzailearen "ikuspegi" desberdinak eragiten du.

Halako proposamen baten aurrean, ikasleak taldean dagoen irudimen aberastasuna aurkitzen du, konparatu eta jolastu egiten du. Hain zuzen ere, umoreak eta, sarri, ironia eta garraztasun ezkutuak, "testu librearen" praktika honetan ihesbidea aurkitzen dutelako.


Jonseta Jon
KLAS KLAS
PLOF
PLO
LO


RAAS

ZERGATIEN IPUINAK

Ipuin tradizionaletan berezkoak eta ugari ere ugariak ditugu ipuin etiologikoak. Kontakizunotan, antzinako kultura guztiak munduari buruzko azalpenak ematen ahalegindu dira, hurreko gertaera naturalen zergatiak eman dituzte. Horregatik antologietan halako izenburuak erraz topatzen dira: "Zergatik dabiltzan urretxindorrak txioka eten barik" (Indiako ipuina), "Zergatik da gazia itxasoko ura" (Alemaniako ipuina), "Zergatik da burusoila saia" (Birmaniako ipuina) edo "Zergatik ez duen okelarik jaten erbiak" (Poloniako ipuina).

Baina ez daukagu zertan antzinako folklorera jo ikasgelan kontakizun etiologiko bizi-biziak aurkezteko, batez ere ikasleak fabulazio harrigarri eta barregarria egitera bultzatu gura baditugu. Esaterako, Roberto Mielgoren *Basamortuko gauak* (Kimutxo saila, 17. zk. Gero, 1993), edozein liburutegitan erraz aurkitzeko modukoa da, eta kontakizun etiologikoak eragiteko beren beregikoa izan daiteke.

Honako pasarte batzuk ahogoran irakurtzea baino ez dago ikasleek irudimena erne izan dezaten: "Zergatik krokodiloak ez duen inoiz arkurik hausten barre egiten" edo "Zergatik dituzte adarrak behi zaharrek".

Ikasleak, gertaerarik arruntenak ahalik eta harrigarri edo barregarrien kontatzen ahaleginduko dira. Emaitza adibideotan ikusiko dugu, ikasle zein irakasleen ipuin hauetan:

"Zergatik ilargia ez den beti ilargi betea."

"Bada, osten-osteka olgetan dabilenean eta ilargiak kontatu behar duenean eta eguzkia ostendu, ilargiak burua atera eta tranpa egiten duelako."

(Tomás Iglesias, 10 urte)

"Zergaitik urten zuen Mona Lisak halako barrearekin."

Hasiera baten, Italian, ez zegoen Mona Lisa baino hagin politagoko andrarik. Eta horrexegatik erabagi zuen Leonardo da Vincik bera pintatzea.

Lehenengotan ez zekien zelako jarreran pintatu, baina bazekien irribarre zabal batekin pintatu behar zuela, haginak ondo ikusi zitezen. Baina koadroa ia amaituta zegoenean, Mona Lisak, jesarlekutik jausi, eta mahai ertzaren kontra jo zuen. Eta hagin guztiak jausi zitzaizkion.

Leonardo da Vinci, ostera, artista argia zen eta irribarre berberarekin pintatzea erabagi zuen, baina ahoa itxita.

(José Malavert, 10 urte)

"Zergaitik den arrautza-formakoa rugbyko baloia"

Bidaia luzeak egiten direnean denerako astia egoten da: irakurtzeko, film bat ikusteko, lagunarekin berba egiteko... eta, batez ere, pentsatzeko.

Ba, rugbyko taldearekin Britainia Handitik zehar nindoala, eta denbora emateko era guztiak amaitu zitzaizkigunean, betiko gauzetan pentsatzen

hasi nintzen. "Ez da asko falta ailegatzeko", "bira hau garrantzitsua da"..., eta bat-batean, baloi batek buruan jo ninduen. Hartu, eskuetan erabili eta pentsatzen hasi nintzen. "Benetan ere, forma bitxia dauka, pepinoa ematen du!!"

Eta zeozer esatearren, bidai lagunari itaundu nion ea zergatik daukan baloiak arrautza-forma; egia esan, itaun oso normala ni bezalako hasiberri batentzat. Barreka adierazi zidan urte batzuk lehenago, Britania Handitik bira bat egiten zegoela, berak ere itaun berbera egin ziola Peter Welsh jokalari ingelesari; eta hurrengo erantzun hau eman zion, antza:

Gure nagusiek diotenez, joan den mendearen erdi inguruan, Ingalaterra barrualdeko Bytwon izeneko herritxo baten, gazteak, astia zeukatenean, futbolean jokatzeko batzen ziren, guztiok dakigunez, kirol oso errotua daeta herrialde hartan. Gazte haiek, gehienak gorputz atletikodunak, inbidia eragiten zuten euren zortea ez zutenengan; izan ere, gehienak lodikote eta potoloak ziren eta begiratu baino ez zuten egiten.

Baina hasiera bateko inbidia ona, apurka-apurka errezelo eta goganbehar bihurtu zen. Eta hain zen handia errezelo hura ze, baloiak zelaitik irteten zuen bakoitzean ikusle haietako batek hartu eta gainean jezarten zen baloia eragabetzeko asmo gaiztoarekin. Hala zihoan baloia arrautzaforma hartuz, eta, berriro ere jokoan hasi orduan, baloiak bote irregularraz salto egiten zuen, jokalari guztiak haren atzetik arineketan zihoazela; baina laster utzi zioten baloia hankaz jotzeari.

Ohiko haserrealdi haiek zirela-eta, Bytwon herritxoko jendeak sarri ikusten zuen baloia arrautza-formaz. Eta laster zabaldu zen inguruko konderrietara baloi haren entzutea. Hala bada, behar den moduan errodatzeko eta hanka batzuetatik besteetara erraz pasatzeko gai ez zen baloi bat, erabilgarria gertatu zen eskuekin olgetako. Eta halaxe sortu zen

“Rugby”a, berba akronimoa, argi eta garbi, Peter Welsh-en kontakizunaren arabera, “Rustic game of Bytwon” esalditik datorrena.

(Aitor, didaktikako ikastaroetan parte hartu zuen lizentziatua)

Kontakizun hauen ostetik gure arbasoek mundua azaltzeko kontatu zituztenak irakurriz gero, ikasleek asmakizun hauekin, konturatu barik, antzinako ipuin etiologikoen eredua imitatu egin dutela konturatzen gara:

JAINKOA ETA ILARGIA

Igande baten gizon bat hesia zarratzera joan zen elorri-eskuta batez. Jauna agertu zitzaion bidean eta zera esan zion: “Neure eguna lohitu duzunez, neure legea hautsi duzunez, gogor zigortuko zaitut; gau guztietan argia emango duzu munduaren azkenerarte”. Eta une hartan bere elorri-eskutarekin igo eta, ordutik hona ilargi legez dago zeruan.

(*Leyendas y cuentos populares del país vasco*,
“Euskal-Erria...” aldiz. IX, 2. arg. 1883, Donostia)

Era berean konturatzen gara, ipuin tradizional haien eta ipuin hauen artean, ikasleak hainbat irakurgai erakargarri aurkitzen dituela: R. Kiplingen *Precisamente así* (gaztelerazko, inglesezko edo euskarazko gaur eguneko bertsioak), H. Quirogaren *Oihaneko ipuinak* edo, esate baterako, ipuin herrikoien antologiak, gaur egun hain ugariak. Eta irakurtzea eta idaztea elkarri lotuta daudela halakoetan.

Hona hemen adibide ugari:

ZERGATIK ERRINOZEROEK ADAR BAT BAINO EZ DUTEN.

Aspaldiko denboretan, gaurko zezenak eta errinozeroak espezie berekoak ziren. Elkarrekin joaten ziren lautada eta belardi berdeetara. Egun batean, haietako errinozero batek zeharo aspertuta ibilbide bera egiten zuelako, zuhaitz baten azpian atsedena hartzea erabaki zuen.

Haien lagunek, errinozeroaren nagikeria ikusita, adarretatik tiratzea eta tiratzea erabaki zuten altxatu arte. Horren indartsu teink eta teink egin zuten ze, errinozeroaren adar batekin gelditu ziren. Gaur egun, errinozeroek zezen alper baten ondorengoak direla esaten dute.

(DBH-ko 2. mailako Nahia Galarza)

ZERGATIK DA ITSASOKO URA GAZIA?

Ba dakizue itsasoko ura zergatik den horren gazia?

Duela urte asko itsasoko ura errekakoa bezain gozoa zen. Txoriak eta emakumeak bertara joaten ziren.

Bazen lamia bat artzain batekin maiteminduta zegoena. Egunero ikusi ohi zuen artzaina ardiekin zihoala. Hasieran agurtu, eta ondoren berbetan hasi ziren biak.

Egun batean, kanta bat kantatu zion, beste behin lamiak itsasoko maskor bat erregalatu zion itsas ondoko etxola batean bizi baitzen. Horrela egoten ziren egun batean zein bestean, maitemindu arte. Lamiak bere etxera gonbidatu zuen artzaina, afari gozo batera. Zopa handi bat prestatu zion lapiko erraldoi batean eta zera, lamiari nahiko gazi atera zitzaion zopa hura.

Artzaina heldu zen. Biziki poztu zen zopa hura ikustean! Dena jateko prest zegoen, baina dastatu zuenean, hara! zopa hura gazi-gazi zegoen. Atera kontu, ez zegoen gizakirik, gaziaren gaziz halako zoparik jango zuenik!

Artzainak erantzun zion:

–Aizu barkatu, baina ezin dut hain gogotsu prestatu duzun zopa hori jan.

Lamiak erantzun zion.

–Baina, zer dela eta?

–Tira, oso gazi dago.

–Zer diozu? Ez dago horren gazi!

–Niretzat bai.

Lamia molestatu zen. Platera jaso, lapikoa hartu, itsaslabar ondora joan eta itsasora jaurtiki zuen.

Hara! Beste horrenbeste! Hain zegoen lapikoa gazi ezen handik aurrera itsasoko ura gazi dago. Baina ez hori bakarrik. Itsaso horretara ura hartzera joan ziren txoriak ere ur hori edan ondoren, arrain bilakatu ziren.

Harrezgero, arrainak daude eta bainua hartzen ari ziren emakume haiek lamia bihurtu ziren eta lamiak berak, lapikotik zopa gazi hura bota ostean, itsasora bota zuen bere burua eta bera ere sirena bihurtu ei zen.

Orduan, artzaina itsasoratu egin zen txalupa txiki batean lamia aurkitzeko asmoz eta horrexegatik daude arrantzaleak munduan. Bera izan zen, antza denez, sirena bat topatzeko asmoz itsasoratu zen lehen arrantzalea.

Aurkitu zuen ala ez, hori ez dakigu.

Erlantz Santa Maria (DBH 1. mailako ikaslea).

NOLA EGIN ZEN ARROZA

Duela zazpi milioi urte baino lehenago, gizakiak lurrean izan baino lehen, lurrean animalia handi eta txiki ugari bizi ziren, nahiko zoriontsu gainera.

Lurrean, udan, nahiz eta urtarorik ez egon, bero handia egiten zuen, beraz, janari ugari zegoen animalia guztientzat; neguan, aldiz, hotz handia egiten zuenez, ez zegoen ezer jatekorik.

Egun batean, elurte handia zegoela, bat-batean zerutik arroz-aleak jausten hasi ziren, elurra balitz moduan.

Arroz-garau ugari jausi zirenez, asko lur azpian sartu ziren.

Ordudanik, arroza lurretik hazten eta hazten aritu da eta beti, arroza animalientzako egina dagoela esaten da, nahiz eta haiek ez jan eta guk bai.

Inork ez daki nola gertatu den fenomeno hau. Batzuk jainkoa izan zela diote, beste batzuek, ordea, zuhaitz handi-handia izan zela diote, haizeak zuhaitza astindu zuela eta ondorioz, arroz-aleak jausi egin zirela.

(Eneko Monton DBHko 2. maila)

ZERGATIK DIRA ARRATOIAK HAIN TXIKIAK

Orain dela urte asko, antzinako Grezian, animaliak bakarrik zeuden. Imaginatzen duzue horrelako mundu bat? Ba, imaginatu. Denen erregea usoa zen, denak oso pozik bizi ziren.

Baina egun baten usoa beste lurralde batera joan zen negozioak egitera eta arratoia utzi zuen agintari.

Hasieran ondo gobernatu zuen lurraldea, baina usoa hil zela entzun zuenean, gaiztakeria asko egin zituen eta animalia guztiak esklabo bihurtu zituen.

Horrela igaro ziren hamar urte. Zer dela eta lehoia bezalako animaliek ez zioten arratoiari ezer egiten?

Arratoia oso-oso indartsua zen eta inor ez zen ausartzen erasotzen. Halako batean musker jakintsu bat heldu zen Greziara eta arratoia menderatu zuen.

Maldizio bat bota zion.

–ARTXILA-MORTXILA, urte bete osorik jan gabe egon zaitez –esan zion erabat haserre muskerrak.

Halaxe gelditu zen ondoren arratoia, txiki-txikia eta bere ondorengo belaunaldikoak ere, bera bezain nimitxoak gelditu ziren.

Eta egia ala gezurra,
begi bien artean sudurra.

(Urko Gonzalez, DBH 2. mailako ikaslea).

ZERGATIK EGITEN DUEN EURIA

Orain dela urte asko, mundua sortu gabe zegoenean, guztia ura zen; ez zegoen ostorik, ez animaliarik, ez gizakirik... ez zegoen ezer.

Behinola, eguna argitu zuenean, ur azpitik lurra hasi zen ateratzen eta gizakiak ere agertu ziren. Hauek hiriak eraikitzen hasi ziren baina arazo handi bat zuten: Non sartu ura?

Makina batzuk asmatu zituzten eta poliki-poliki ura biltzen hasi ziren. Hainbeste ur gordetzeko, ordea, ez zuten makinarik.

Lekuren bat aurkitu behar zuten lurreko ur guztia pilatzeko. Emakume batek zerura begiratzean, amaierarik gabeko leku bat aurkitu zuen. Aurrerantzean ur guztia zerurantz bota zuten eta hodeietan geratu zen.

Egun hodei hauek mugitzen direnean, euria izaten dugu.

Ane Miren DBH 2. mailako ikaslea.


UNTZIAK ZERGA-
TIK DAUKAN BE-
LARRIAK HAIN LU-
ZE ETA HANDIAK
Egilea: Ane Huren


Oraun dela denbora asko...
Ya noiz aperatuko dain tekia izateon
Badakit! Zeruko iego eta igoin-Koari handiagoa egiteko eskatuko diot.
Geroago!
Jainko igurra, questatuko litzaidake handiagoa izatea
Beno. Lau lorem ekartzen badituzu handiagoa egingo dizut.
Tigreari, Teimuaren, muskerrarenetan sugearen azalak iran behar ko diro.
Ados!
Geroago..
Kaico tigre igurra
Kaiko
Orain, berton igoinkoarekin egon naiz eta gustaz bizirauteko duen irugarreko ekartzea lotzea eman dit
Eta ez daukazu beldurrik?
Ez, noskitakon tekia, naiezez ezer zein lekuan gorde naiteke.

Ondo da!
Tori!
Gerorg...
JA, JA.
Gerorg...
Ondo da!

Zen de izango da Kolpea emateko lehenik dezena!
Hurrengo egunean...
Baina hezimaguan...
JE, JE
Ondo! Orain bakarrik falta zait zugorenorako
Hurrenego gauean...
Horra hor
Jeneria!

Badauzkat lan azkarrak!
Gerooooo...
Kaixo Jjunko! Heren dauzkat zu eskatutako lanak, oraingo handiagoa lehenetik.
Ondo da. Baina lehenago kontatu nolako lotu dituzun
Ba...
... eta horri do gustia
Urtxi hau deabrua da!
oraingo hemendik igoan zautze! Eta ez dizut handiagoa eginago, baiz taka zanes maltzurkeri horiek egiten badituzu handia nonez, zer eginago duzu ba...?
Eta urtxia belaxu handiekin eta begi letxikin geratu zen betirako.
AMAIERA.

IPUIN POLINOMIKOAK

Gianni Rodarik, *Gramática de la fantasia* lanean, alegiazko kontakizunak asmatzeko bildu zituen tekniken artean, “binomio fantastikoa” delakoa dugu ezagunena eta goraipatuena (“berba batek beste baten eraginez bakarrik dihardu” zioen italiar pedagogoak. “Binomio fantastikoan berbek ez daukate betiko esangura; normalean agertzen diren berba-kateetatik askatu egiten dira... eta elkarren kontra jaurti inoiz ikusi ez den zeruan. Eta orduantxe daude, egon ere, istorioa osatzeko egoerarik onenean... umeek atsegin hartuaz erabili dezaketen teknika da”). Gaitasun ludiko honen azalpena, gure iritzian oinarrizkoa den idea batekin amaitzen zuen: “Gure eskoletan, orokorrean, barre gutxiegi egiten da. Adimenaren heziketa serioa eta iluna delako idea gainditzea da gaitzena”.

Rodarik esandakoa azalduz eta abiapuntutzat bere “binomio fantastikoa” hartuta, eta bereziki “Luz y zapatos” bere *Gramatika*-ren V. kapitulua, hauxe proposatzen dugu: IPUIN POLINOMIKOAK formularen bitartez, han-horhemen zabal dauden eta itsu-itsuan aukeratu diren elementu batzuekin kontakizun bat asmatzea, beti ere narratzailearen logika eta irudimena erabiliz.

Emaitza, hauen moduko ipuinak izan daitezke, ikusi bestela ondorengo adibideetan:



ZALDIA, DIAMANTEAK ETA ERLOJUA

Asko munduan bezala, mutil batek oilo bat saldu zuen zaldi baten truke. Zaldi hori oso berezia zen eta egun batean esan zion mutilari:

–Begira mutil, apostu bat egingo dugu ea nork egiten duen aterik gogorrena eta iraunkorrena. Horrek sari galanta izango du.

–Ongi da.

Handik egun gutxira umea agertu zen zurezko ate batekin. Zaldiak esan zion:

–Zurezkoa? ez da oso iraunkorra. Adibidez, sute bat baldin badago, erre egingo da. Ez, ez du balio.

Une hartan herriko mutilik jakintsuena agertu zen, diamantezko ate batekin:

–Ene, diamantezkoa! Hau bai hau mineral iraunkorra! Paregabea benetan zuk asmatutako atea. Ez da erretzen, ez da apurtzen, bai jakituria zurea, bai– esan zuen harrituta zaldiak.

Dudarik gabe mutil honentzat izango zen saria, inork ez zuen halakorik egin inoiz. Eta ezetz jakin zer opari egin zioten? Erloju miresgarri bat.

Kaletik zihoan poz-pozik esku batean erlojua eta bestean atetik aterako diamanteak zituelarik.

Egia bada sinets, ez bada egia ez sinets.

(Lexuri Lopez DBHko 2. mailako ikaslea).

ARRANTZALEA, JAKITURIA ETA ZORROZKAILUA

Zeruan urdina, lurrean belarra, itsasoan ur tantak eta basamortuan harea.

Deba inguruko itsaso ondoan bazen arrantzale bat bere itsasontzian arrantza egitera irten zena. Arrantzalea behartsua zen eta ia ez zuen dirurik bere familia mantentzeko.

Udako goiz batean, arrantzalea herriko merkatura jeitsi zen janariaren bila, baina bidetik atso batekin topo egin zuen, eta hark honela esan zion gizonari:

–Hartu zorrozkailu hau eta hemendik aurrera arrantza ugaria izango da eta horren ondorioz, zure familia mantenduko duzu eta gizon aberatsa izango zara.

Arrantzalea harriturik, zorrozkailua hartu eta etxera bueltatu zen bere emazteari gertatutakoa kontatzera. Emazteak arrantzalearen istorioa entzun ondoren, honela esan zion:

–Emaidazu zorrozkailu miragarria eta herriko apazizarengana eramango dut ea zer esaten duen.

Bazkalostean, andre hura apaizarengana joan eta zorrozkailua erakutsiz, istorio guztia apaizari kontatu zion berriz.

–Atso hark jakituria askorekin hitz egin dio zure senarrari, munduan dagoen zorrozkailu miragarri bakarra da, zorte handia ekarriko dizue bizitzan zehar– erantzun zion apaizak.

Hilabete batzuk igaro ziren eta arrantzale behartsua bankujabe aberats bat bihurtu zen.

Eta ongi bizi izan baziren, ongi hil ziren. Orduan han nintzen eta orain hemen.

(Irati Arzuaga DBHko 2. Maila).

MENDIA, SORGINA ETA URA

Asko munduan bezala bazen mendi bat. Mendi hori oso altua zen. Bertan ez zuen inoiz euririk egiten eta mendiak ura ikutu nahi zuen.

Negua etorri zen baina, hala ere, elurra baino ez zuen ekarri, eta mendiak ura nahi zuen eta ez elurra.

Egun batean sorgin bat joan zen mendira osto batzuk bilatzera, bere edabe magiko bat egiteko asmoz.

Mendia oso triste zegoen. Sorginak konturatu eta esan zion:

–Zer gertatzen zaizu, mendi?

Mendiak erantzun zion:

–Ura ikutu nahi dut baina ez du euririk egiten.

–Lagunduko dizut –erantzun zion sorginak.

Sorginak edabe magikoa egiteko pitxarra eta behar zuen guztia eraman zuen mendira. Pitxarrean ura bota zuen, osto berezi batzuk, arratoiaren pekorotza eta txerriaren mihi bat. Gero hitz magiko hauek esan zituen:

Artxila, murtxila!

Minutu pare bat igaro zen hitzak esan zituenetik. Pitxarrak eztanda egin zuen, BOOM!, mendia edabe magikoaz bete zen, bat-bateean eguzkia atera zen eta ederki berotu zuen mendia.

Edabe magikoa lurrindu egin zen eta mendiaren inguruan hodei handi bat ageri zen; hodei hartatik ura eta ura atera zen. Hilabetearen buruan euria eta euria egin zuen. Mendia oso pozik jarri zen, urez beterik inguratuta baitzegoen.

Eta nik kontatu dizuet
mendiak niri kontatutako moduan.
Hala izan edo ez izan
zuen bihotzak ipuin hau
entzun dezan.

(Erlantz Santa Maria, DBH 1.mailako ikaslea)

HERRI IPUINAK

Duda barik, testuak lantzeko iturririk aberatsena eta oparoena ipuingintza tradizionala dugu, eskoletako liburutegietan ditugun bilduma eta antologietan zabal hedatuta.

Liburu horietako bat zabaltzea, sorpresa-kutxa bat zabaltzea modukoa da, edo ezezagunak zirelakoan, ezagun egiten zaizkigun bazter arrotzetara bidaiatzea modukoa. Izan ere, ipuin horien barruko eskeletoa topatuz gero, orduan ulertuko dugu zeintzuk diren zatiak eta zelan josten diren alkarrekin. Eta horrexek erakutsiko digu zelan egin geure "puzzle" narratiboak, egitura zein den jakinda.

Ikus dezagun ipuin tradizionalen aurrean sailkapena, egitura eta prozedura mota desberdinak.

Ipuin tradizionalak (Idazleak, gaiak eta kontuak)

Elhuyar hiztegi entziklopedikoak definizio hau ematen digu ipuinari buruz: "prosan idatzitako narrazio lan laburra, bereziki alegiazko gertaerak kontatzen dituena eta umeei zuzendua".

Azken batean edozein kontakizun edo narrazio laburren funtsa aurki dezakegu, delako hori herri ipuina zein literatur ipuina, fantastikoa zein errealista izan.

Ipuin tradizionala ezertan bereizten bada honako honetan da: herriaren oroimenean bizirik irauten du, usadioei eta ohiturei atxikiz mendez mende, gizaldiz gizaldi, belaunaldiz belaunaldi.

Hiru ezaugarri nagusi: unibertsaltasuna, iraunkortasuna eta entzutea

Ipuin tradizionala taldeak, herriak berea egin du. Ipuin tradizionala ahoz aho pasatzen da, eta ahots horiek hizkuntza desberdinetan mintzatzen badira ere, idazkera finkorik ez izateak zeharo errazten du hizkuntza batetik beste batera pasatzea, kultura batetik bestera igarotzea.

Haien sormen ezezagun eta antzinakotik, ipuin herrikoiek batetik besterako saltua egin dute eta antzinako ekialdeko bildumetan, ertarokoetan eta erromantikoetan pausalekua aurkitu dute (Perraulten *Antzinako Ipuinak*; Grimm anaiek bildutako *Umeentzako eta etxerako ipuinak*... eta abar.

Ipuin tradizionalen sailkapena eta tipologia

Ipuin tradizionalak euren gaiak kontuan hartuta sailkatu ohi dira. Aarne-Thompsonena da sailkapenik ezagunenetakoa. Honako sailkapen mota hau proposatzen dute:

–Animalien ipuinak: oinarrizko protagonistak animaliak ditugu.

–Ipuin miresgarriak: ipuin hauetan naturaz gaindiko elementuak agertzen dira.

–Ohitura-pasadizoak: kontaketak eta txiste xelebreak.

Dena den, eta euskal foklorera hurreratuz gero, Piarres Lafittek bereiztutako bost atal nagusiok ditugu:

–Leienda eta ipuin epikoak: mitologiako heroiak, pertsonaia historikoei buruzko leiendak eta aparteko balentriak kontatzen direnak, adibidez Jaun Zuriarena edo Aitor edo Carlomagnorenak.

–Ipuin paganoak eta jentilen ipuinak: euskal mitologia eta bertako pertsonaiei buruzkoak, hala nola Mari, Lamiak, Basajauna, Tartaro eta Herensuge...

–Iratxo ipuinak: mundu osoko folklore unibertsaletik hartutako pertsonaiak eta eraldaketa miresgarriak narratzen dituztenak.

–Jentilen eta kristauen ipuinak: ipuin hauetan Bibliatik hartutako gaiekin eta kristauen fedearekin bat datozen kontuekin batera, antzinako sinesmenak eta sineskeriak nahasten dira.

–Umorezko ipuinak: eguneroko bizimoduan agertzen diren pertsonaien berri ematen dute, besteak beste herrian zeharo ezagunak direnak: Pernando Amezketarra, Peru eta Marixe, Axular idazlea, kasurako.

Ipuin tradizionalen estilo ezaugarriak

Ipuin tradizionalak ia beti beste garai bateko gertakizun moduan agertzen zaizkigu, garai mugagabean, datarik gabekoan.

Biltzen dituen gertaerak, batzuetan hur daudela pentsatu arren, gehientsuetan zehaztasun gutxiko tokietan gertatzen dira: jauregi batean, oihana edo basoan, etxolaren batean. Bestelako egoerarik ere agertzen da, kasurako elezaharretan. Hemen, elezahar baten aurrean gaudenean, denborari eta lekuari buruzko aipamenak zehatzak izan ohi dira, tokiaren eta denboraren erreferentziak ugari ez badira ere.

Kontatzeko denbora, ordea, iraganaldi zehaztugabea da.

Pertsonaiei dagokienez, pertsonaia hutsak dira, gutxitan zehazten direnak: baserritarra, printzea, maitagarria... Aldez aurretik markaturiko funtzio topikoak edo oso antzekoak hartzen dituzte (ongilea, laguntzailea, heroia, gaizkilea...). Ez dute izen berezirik izaten eta izaera sikologikoa oso gutxitan agertzen da, literatur ipuinetan eta eleberrietan ez bezalaxe.

Egitura itxia dute beti eta gertaera andana batek osatuta agertuko dira. Gehienetan laburrak dira eta bukaera zoriontsua.

Formuletan oinarritutako hizkuntza eredua darabilte. Hasiera emateko esaldiak (Behin bazen, Behinola, Aspaldi-aspaldian), bukaeran erabilitakoak (Eta ongi bizi baziren, ongi hil ziren) eta beste esaera batzuk, ekintzak elkarrekin lotzeko (Bat-batean, Halako batean, Biharamunean...).

Ipuin tradizionalen egitura

Ipuin gehienak ipuin miresgarrien eta maitagarrien multzoan sailkatu daitezkeenez, iker ditzagun barne antolakuntzan izaten dituzten ezaugarri nabarmenak.

Vladimir Proppek ipuin tradizionalak sakon ikertu ostean, guztietan behin eta berriz errepikatzen ziren motibo batzuk aurkitu zituen eta "pertsonaien funtzioak" izenarekin ezagutzen dira gaur egun.

Hogeita hamaika funtzio horiek aztertzea ezinezkoa denez, horietako batzuen aipamena egingo dugu: familiako kideren bat urrundu egiten da, protagonistari zerbait debekatzen zaio, erasotzaileak biktimari buruzko informazioa lortzen du, zerbait galtzen da.

Gainera, aipatu funtzio hauetako batzuk (guztiak ipuin berberean suertatzen ez badira ere) bikotetan agertzen dira:

–debekua+debeku hori haustea
–galdeketa+informazioa
–borroka+garaipena
–jazarpena+laguntza

Oro har, zazpi izaten dira aktanteak edo parte hartzen duten pertsonaiak: heroia, erasotzailea, laguntzailea, agintari bat, biktima, emailea eta heroi faltsua.

Beraz, ia ipuin tradizional guztiek erabiltzen dituzte aipatu funtzioak eta zazpi pertsonaia mota hauek.

Ipuin tradizionalen baloreak

Ipuin tradizionaletan balore moralak garrantzi handia dauka. Batzuetan bukaera zoriontsuaren bitartez azalduko da eta beste batzuetan oso agirian, beren beregi esanda.

Jaun Zuria, Orreaga, Pernando Amezketarra eta Peru eta Marixeren ipuinetan esaterako, nekez agertuko dira balore berberak, baina, hala ere, hauetako bakoitzak baditu propio diren baloreak, batzuetan patriotismo kutsu horretan bereziki indartuta.

Horrela, Jaun Zuriaren kondairan Lekobide patriarkak bere etxean hartutako esker ona agertzen du eta istorio epiko honetan elkartasuna da besteak beste azaltzen den balorea.

Hala ere, ipuin tradizionalen ezaugarririk nabarmenena, zalantzarik gabe, beren izaera fantastikoa litzateke. Fikzioak beste mundu batzuetara garamatza, beste errealitate batzuk bizitzea posible egiten digu eta egunerokotasunetik ihes egiteko bide zabala eskaintzen du.

Ipuin miragarrien egitura

Vladimir Propp ikertzaileak ipuin miragarri guztietan elementu iraunkor batzuk errepikatzen direla beti aurkitu zuen. Elementuoi pertsonaien funtzioak deitu zien.

Funtzio horiek kopuru zehatza zutela ikusi zuen: 31. Eta ipuin guztietan denak batera agertu ez arren, beti azaltzen dira ordena berean kontakizunean zehar.

Ipuineko funtzioen zerrenda laburtua Proppen arabera

0. Hasierako egoeraren deskripzioa. Ez da funtzioa.
1. Familiakoren bat urrundu (edo hil, kasurik txarrenean)
2. Protagonistari egiten zaion debekua.
3. Debekua hautsi.
4. Erasotzaileak biktimari buruzko berriak bilatzen ditu.
5. Erasotzaileak lortzen ditu biktimari buruzko berriak.
6. Erasotzailea biktima atzipetzen ahalegintzen da.
7. Biktima gaizkide egiten da bere gurariaren kontra, atzipetu dezaten ustean.
8. Erasotzaileak okerkeria egiten du. Zeozeren falta igartzen da.
9. Falta denaren edo okerkeriaren berria zabaltzen da eta heroiarenganaino heltzen da.
10. Heroi bilatzaileak erasotzailearen aurkako ekintzari hasiera ematen dio.
11. Heroia bila irteten da: bilatzaileak helburu hori dauka; biktimak ez dauka helburu zehatzik.
12. Heroiak emaile bat aurkitzen du eta honek proba bat egiten dio.

13. Heroiaren erantzuna probari.
14. Heroiak gauza hartu edo kendu egiten dio emaileari.
15. Heroia bila dabilen gauza dagoen lekura doa.
16. Heroia eta erasotzailearen arteko borroka.
17. Heroiak marka bat hartzen du.
18. Erasotzailea gainditu egiten du. Garaipena.
19. Okerkeria edo falta zuzendu, arteztu.
20. Heroia itzuli egiten da.
21. Heroiari jarraitu egiten diote erasotzaileak eta haren kideek.
22. Heroiak laguntzaile magikoaren laguntza hartzen du.
23. Heroia inork jakin barik heltzen da.
24. Sasi heroi batek asmo ilunak erreibindikatzen ditu.
25. Heroiari lan gaitza agintzen zaio.
26. Heroiak bete egiten du lan zaila.
27. Heroi legez onartzen dute.
28. Sasi heroiaren nortasuna argitzen da.
29. Heroiak bere itxura eta ingurua antzaldatzen ditu.
30. Zigorra heroi faltsuari.
31. Heroiaren ezkontza eta beste sari batzuk.

Hurrengotik hurrengo funtzio horiek (denak agertu ez arren) dituen kontakizuna, eta jardule edo pertsonaia horiek dituena, ipuin miresgarria dela esan dezakegu.

a) Pertsonaia eta funtzioak herri ipuinetan.

Hurrengo koadroan ipuin miragarrien pertsonaia edo jarduleak ditugu. Kasu honetan, “Txano Gorritxoren ipuina”.

HEROIA	Txano Gorritxo
ERASOTZAILEA	Otsoa
MANDATARIA	Ama
BIKTIMA	Amama
LAGUNTZAILEA	Ehiztaria

b) Pertsonaiak bilatu irakurritako ipuinetan.

1. Antzeko koadroa eginez gero, irakurritako ipuinetan ezagunak egiten zaizkigun pertsonaia-jarduleak ipini ahal izango ditugu espazio bakoitzean (ez dezagun ahaztu ez dutela zazpiak zertan agertu, eta batzuetan, pertsonaia bakar batek hainbat funtzino bete ditzakeela).

2. Aurrean Propp-en 31 funtzioen zerrenda daukazula, irakurrita dituzun ipuinetan ahalegindu zaitez funtzio garrantzitsuenak (urruntzea, debekua, atzipena, burruka,...) bilatzen.

Kontakizunean, 31 funtzio hauekin bikoteak egin daitezke. Hona hemen zazpi bikote:

1. Debekua-Haustea (2-3)
2. Itaunketa-Iinformazioa (4-5)
3. Atzipena-Gaizkidetasuna (6-7)
4. Borroka-Garaipena (16-18)
5. Marka-Ezagutzea (17-27)
6. Okerkeria-Zuzenketa (8-19)
7. Jazarpena-Laguntza eskatzea (21-22)

URRUNTZEA (F.1)

–Aitak basora daroaz seme-alabak (Hansel eta Gretel, Grimm anaien Ipuinak).

–Amak Urrezko Lorea nebaren ardurapean utzi du (Artz amama, Dragoiaren aztarna ipuinean).

–Jessie gaztea ur bila doa putzura (Apo printzea, Britaniar ipuin herrikoiak).

DEBEKUA (F.2)

–Txanogorritxori basoa zeharkatzea galerazi diote (Txanogorritxo, Antzinako ipuinak).

Zazpi dira ere, AKTANTEAK edo ager daitezkeen pertsonajeak:

1. Heroia
2. Erasotzailea edo antagonista
3. Laguntzailea
4. Mandataria
5. Biktima
6. Sasi heroia
7. Emailea

–Senargai gazteak sekretua ez kontatzeko eskatu dio Gerdari (Guztien ahotan zegoen sekretua, Ipar haizea).

ATZIPENA (F.4)

–Amordeak sagar pozoindua eskaini dio Edurnezuriri (Edurnezuri, Grimm anaien Ipuinak).

–Mangangezula aztia Sikulume gaztea amarruan jausi dadin ahalegintzen da (Sikilume eta Mangangezula aztia, Txabolako Zirkulua).

BITARTEKOTZA (F.9)

–Otsoak biderik laburrena erakusten dio Txanogorritxori (Txanogorritxo, Antzinako ipuinak).

–Amordeak eta aitak Adidio etxetik bota dute (Otsoaren eztainak, Samuraiaren gaua).

EGINBEHAR GAITZA (F.25)

–Erregeak Juanikori txori bat harrapatzeko eskatu dio, eta gero eraztuna (Zazpi koloreko zalditxoa, Iberoamerikako ipuin herrikoiak).

–Merkatariak protagonista gazteari basoko arbola guztiak ebakitzeko eta gero, infernura eskutitz bat eroateko agindu dio (Nagusiaren gaztelua, Txabolako Zirkulua).

Kontuan izan behar da gutxitan agertzen direla zerrendako 31 funtzioak eta, gainera, batzuk errepikatu daitezkeela (batez ere protagonista edo probak hiru direnean).

Orduan bada, hona hemen aztertuta dagoen eta eredu legez erabili daitekeen ipuin bat:

PRAKTIKA ETA APLIKAZIOA

Propp-en funtzioak nola agertzen diren ipuin honetan.

BALZOLAKO GIZON-SUGEA (Euskal Herriko ipuin herrikoia)

Negu aurretxo baten, urteko lehen edur-malutak barruntatuz batera, ardietara joan ziren Paulo eta Pello anaia biak.

Ardiak Balzolako koba-zuloaren ondoko landan zeuzkaten eta edurra loditu baino lehen etxera edo tejamanara ekarri nahi zituzten.

Han zebiltzan ardiok pilatu nahian, bateko txakurrari txistu egin, besteko makila jaso edurrak mara-mara eragoion bitartean.

Ahalegin guztiak eginda be, dena zen alperrik. Edurrak, goian-behean, zarratu-zarratu ekiten zion eta santiamen baten zuritu zen dena, ardiak ibili ez egiteko moduan.

Ardiei hanka meheak edurtzan sartzen zitzaizkienean, euren artileak edur bolaz jazten ziren pisuaren pisuaz ibili ezinik utziz.

Ardiok lehorreratu nahiaren ekina begien bistan zegoen baina ezina bistarago. Horregatik Paulok ondobeharrean badinotso Pello anaia gazteari:

–Hi, honekin edurtza honekin ezingo gaituk etxera joan, pentsatu be ez. Orduan, horraxe, Balzolako koba-zulora eramango dizkiagu ardiok harik eta lurmendu arte. Zer deritzok?

–Nik neuk ondo! –erantzun zion Pellok. Nire aldian, ez diat sekula honelako edurtzarik ezagutu. Hik bai?

–Hobe ez! Ni neu gerrirainoko edurtza be ezagututa negok, hi jaioberri hintzela. Orduan, basabehiak eta zaldiak sartu nizkian hortxe Balzolako koba-zulo horretan. Gaur ardiak egin beharko dizkiagu, osterantzean hotzak hilgo dizkik gesu baten gautu egin behar dik eta.

Halaxe egin zuten. Aidatu ardiok eta denabeharrean heldu ziren ardi eta guzti koba-zulo haretara.

1. URRUNTZEA (familiako norbait etxetik urruntzen da)

Behin koba-zuloraz gero, ardiek euren artileak astindu zituzten edurbolak botateko. Jarraian etzan eta hausnar hasi ziren haitz-zuloaren abaroan.

Paulok eta Pellok be euren soinekoei astinaldi bat emon eta gero, ezarri egin ziren koba-zuloaren arratean.

Paulok, sua izitu zuen eta jateko apur bat atera bere zakutotik. Pellok ez zeukan soinekoa baino besterik eta esan zion:

–Hi, Paulo, zer dela eta ekarri duk hau guzti hau? Jakin egin duk ala gaur gaua hemen egin behar diagula?

–Jakin ez, –erantzun zion Paulok irribarreka–, baina edurrarekin kontuz, edurra zuria dela beltza duk eta badaezpada zuhur ibiltealakorik ez zegok. Nik neuk be aitagandik ikasita zeukat eta hik heuk be ikasiko duk nire adinera orduko.

Biak bietara, jan zuten Paulok eramandako jakia eta kontu kontetan zeuden noizbehinka sugarretan eskuak igurtziz.

Kandela bedinkatu bat be biztu zuen Paulok. Honek beti eramaten zuen kandelario egunean bedeinkatutako kandela bedeinkatua aldean, behar zenean izituteko, sinesmen handikoa zen eta.

Loak noiz hartuko zeudela, Pellok suge handi bat ikusi zuen suaren ingurumaritik ardietarantz.

Zutundu egin zen eta surtatik bertatik ilenti handi bat hartuz, ha suge ikaragarria hilten joan zen.

–Zertan hoa? –itandu zion Paulok.

–Suge endemoniño bat zegok hemen eta hil egin behar diat.

–Ez, Pello, ez ezak hil, hori be Jaungoikoak egina duk eta!

–Berdin zidak, hil egin behar diat eta kito!

Esan eta egin! Pellok indar guztiaz bota zion ha ilentia sugea buruan

2. DEBEKUA (protagonistari zerbait debekatzen zaio)

3. DEBEKUA HAUSTEA (protagonistak horixe egiten du)

joko zuelakotan, baina, huts egin zuen eta buruan barik buztanean jo eta buztan punta kendu.

Sugea estaldu egin zitzaion koba barruan. Txori-gorri eta guztiak bota zizkion sugeari koba barruko iluntasunean, baina alperrik, sugearen gerizarik be ez.

Gaua igaro eta eguna zabaldu zenean, Paulok joan-etorri bat egin zuen inguruetatik eta esan zion Pellori:

–Hi, egun eguzkitsua agertu duk eta egurdartean ez bada, arrastirako lurmenak agertuko dituk eta joan ahal izango gaituk astiro-astiro etxera.

Halaxe gertatu zen. Arrastian, hartu ardiok eta gau iluntzerako bake bakean zeuden etxean ardi bat esan eta bera be galdu barik.

Negu luzea be joan zen eta udaberria etorri zenean, Paulori guda batera joan beharra etorri zitzaion.

Urrun joan behar izan zuen, Luyandoko Malato arbola baino askoz urrunago. Borondatez kontra baina joan egin behar.

Guda hori luzea izan eta luze egin zitzaion Paulori, baina halakoren baten akabatu zen gerra hori eta lizentziatzeko eguna ailegatu.

Gabon eguna zen. Eguerdi ostean lizentziatu zituzten gudariok. Poza eta algara ez zen falta, baina Paulok, begiak jaso eta esan zion bere buruari:

–Ni negok ona! Gabon arrastia duk eta ez zeukat gaur etxera heltzeko modurik. Aurtengo Gabonak bidean egin beharko dizkiat. Baina tira, konformatu egingo nauk, gerra honetatik bizirik urten diat eta.

Hausnarketok eginda, etxerako bidea hartu zuen Paulok. Oinez zetorren bakar bakarrik eta pentsakor.

Handik lasterrera gizon ezezagun bat hurreratu zitzaion Paulori eta era honetara berba egin zion:

11. ETXETIK ALDENTZEA (protagonistak etxetik alde egiten du)

12. EMALEAREN LEHENDABIZIKO FUNTZIOA (froga, galdera edo eraso bat gainditu ondoren, gauza magiko bat eskuratzeko prest dago)

–Zer burutazino darabilk buruan?

–Zein erabiliko diat ba, Gabon gaua etxean egin gurarena! –erantzun zion Paulok.

–Benetan be Gabon gaua eureekin egin nahi duk?

–Hik heuk be ez dakik zenbat baino gurago niakeen Gabon gaua neure etxekoekin egitea!

–Hori gura baduk, plantatu hadi apurrin nire neure lepoan eta nik neuk eramango haut airean! Baina, kontuz, kondizio batekin: hegaz goazela ez duk esango "arre deabrua" baino besterik, entzun didak?

Paulok ezin zuen ezer ulertu baina, alde batetik etxera-gogo handia zuenez eta bestetik hari gizon bereziari ezetz esaten ausartzen ez zenez, badinotso:

–Ondo zegok, joango nauk. Baina ba al dakik hik ni nongoa naizen?

13. ERANTZUNA (protagonistak froga galdera edo erasoa gainditzen du)

–Jakingo ez diat ba! Gogoratzen al duk, behinola, hi eta hire anaia nola egon zineten Balzolako koba-zuloan gaua egiten edurtza handi batekin eta zelan hire anaia Pello ha sugea hil guran ibili zuan!

–Bai! gogoratuko ez nauk ba!

–Ba ikus ezak nire eskua, hatzamar txikia falta diat. Hauxe duk hire anaiak ilentiarekin kendutako buztan punta. Oraindino hire anaiarenganako berbak ondo gogoan dizkiat: "bakean uzteko sugea be Jaungoikoak egina dela eta"; horregatik zorrean negok eta eramango haut Balzolako kobaraino.

14. GAUZA MAGIKOA ESKURATZEA (bapateko bidaia hegaz egiteko aukera...)

Esan eta egin! Deabruak apurrin hartu zuen Paulo eta honek "arre deabrua" esanaz batera airean zeuden.

Gabon egun horretako iluntze aurretxoan heldu ziren Balzolako koba zuloaren arratera. Paulo guztiz zorabioturik zegoen eta bere konortera etorri zenean ezin zuen sinistu be egin Balzolan zegoenik.

Deabruak Paulori zion zorra hobeto bete guran edo, hauek berbok esaten hasi zitzaion:

–Hi, Paulo, hator koba-zulora barrura, hor barruan zeozer zeukat bai hiretzako eta bai hire anaia Pellorentzat.

Joan ziren biak barrura eta han kobaren sakon sakonean artza bat bete urregorri zeukan deabruak gordeta. Horretara badinotso:

–Eutsoz, har itzak artza eta bertako urregorri guztiak ondo eginaren pagurako. Ostera, hire anaia Pellori eraman iezaiok hau gerriko gorri hau eta esan iezaiok oraingoz libratu egin dela. Hi izan haizen kasuan Pello izan balitzok, harenak egin zian!

Ikusiak eta entzunak entzun ondoren, Paulok, hartu deabruak emondakook eta abemarietarako bere etxea jo zuen.

Ateak jo, etxean sartu eta bizitako guztia kontatu zien etxekoei. Haiek harrituta zeuden baina pozik.

Denak lasaitu zirenean, Paulok Pellori esku bata lepora bota eta bestean gerriko gorria zeukala esaten dio:

–Hi, Pello, hau gerriko hau heuretzat eman zidak deabruak!

–Nik zertarako behar diat bat gerrikoa, –erantzun zion Pellok–, lotu iezaiok etxe aurreko intxaurrari!

Halaxe egin zuen Paulok. Baina gerrikoa intxaurrari lotuz batera, zzzzziiiiisssssttttt!, sustrai eta guzti desagertu zen ha intxaur hondoa lainoetan galduz. Denak ikaratu ziren eta badaezpada, haiek urregorriak be, etxerako utzi beharrean, abadeari eramatea pentsatu zuten. Eta esaten da, haiek urregorri guztiak San Pedro parrokiako urteroko Gabon gaueko meza ordaintzeko erabili zirela.

(Juan Manuel Etxebarria, *Gabonetako ipuinak,* Ibaizabal)

* Ipuin honetan ez omen dago benetako BORROKArik (16), dena den anaien arteko elkarrizketa antzekoa izan liteke.

15. LEKU ALDAKETA (etxera heltzen da heroia)

17. EZAUGARRIA (heroiak ezaugarri edo marka bat hartzen du)

* Irakurtzen ari garen ipuinean EZAUGARRIA, ZIGORRA, eta SARIA nahasten direla dirudi.

Bestelako prozedurak ipuin tradizionalak lantzeko. Idazteko proposamenak: ipuinak ikertu, berreskuratu, birsortu eta asmatu

Lan talde moduan ezagutzen duzuen ipuinen sailkapen bat egitea proposatzen zaizue, Lafittek egindako hautaketari jarraituta.

Aurretiaz ipuin miresgarrietan parte hartzen duten zazpi jardule edota aktanteen berri eman dizuegu. Antologia honetako ipuinetan dauden pertsonaia desberdinen artean bereizten jakingo zenukete?

(zutabe bakoitzean aukeratutako ipuina markatu)

heroia———- ———— ———- ——-

erasotzailea—- ———— ———— ——-

laguntzailea —- ———— ————- ——-

mandataria —- ———— ———— ——-

biktima ——— ———— ———— ——-

heroi faltsua —— ———— ———— ——-

emailea ——— ———— ———— ——-

Hogeita hamaika funtzio egon daitezkeen arren, beti ez dira guztiak agertzen. Saia zaitezte guztiak identifikatzen eta izendatzen. Normalean Heroi faltsuari emandako zigorra (30) eta heroiaren ezkontza edo beste sari mota batzuk (31) izaten dira azkenak.

Beste proposamen bat

URRATSEZ URRATS

Komenigarria da egiturekin praktikan jardutea, batez ere Proppek berak ipuin miresgarrietan gogoan hartzeko oinarrizko funtziotzat jotakoekin. Beraz, ahozko tradiziotik hartutakoa dela ematen duen ipuin bat sortuko dugu. Horretarako gure euskal ahozko tradizioan agertzen zaizkigun pertsonaietako bat aukera dezakegu –Basajaun, Tartaro, lamiak, Pernando Amezketarra–.

Hona hemen adibide praktiko bat.

MIKELEN ABENTURA

0) Bazen behin mendi tontor batean zegoen baserri zahar bat. Han sendi bat bizi zen, amama-aitita, gurasoak eta bost umek osatua.

1) Egun batean bost anaietariko txikiena gaixotu zen, orduan beste irtenbiderik ez zegoenez, anaiarik nagusiena laguntza bila joan zen herrira. Horra heltzean sendagilearenganantz abiatu zen. Hark erremediorik ez zegoela esan zion, baina, agian, herriko agurerik zaharrenak zeozer jakingo zuela esan zion. Hori jakinda, Mikel, anaiarik nagusiena, agurea non aurkitu arakatzen hasi zen.

2) Hasteko, ondoan zegoen taberna batera joan zen eta zerbitzariari agure hura ezagutzen ote zuen galdetu zion. Hark, baietz esanda, ez joatea hobe zuela erantzun zion. Mikelek, kalera irtetzerakoan, ez zuela amorerik emango zin egin zion bere buruari, bere anaia hilzorian zegoela haren bizitza berarena baino garrantzitsuagoa zen eta.

Oinarritu gaitezen ondorengo eskeman:

0. Hasierako egoera
1. Familiako norbait etxetik doa
2. Protagonistari zerbait egitea debekatzen zaio
12. Heroiak emalearekin topo egiten du eta honek froga bat egiten dio
13. Heroiak froga gainditzen du
14. Horren ondorioz, heroiak zerbait magikoa eskuratzen du
16. Heroiaren eta gaizkilearen arteko borroka
18. Heroia irabazle irtetzen da borrokatik
20. Heroia herrira bueltatzen da

12) Orduan martxan jarri eta tabernariak era txarrean emandako helbideari jarraituz agurea bizi zen kobazulorantz abiatu zen. Heldu zenean agurearekin topo egin zuen eta...

–Aizu, mesedetxo bat eskatzera nentorren –esan zion Mikelek.

–Nola ez! Pozten naiz. Azkenean nork edo nork bisitatxoren bat egin dit –erantzun zion agureak.

–Herrian ez omen duzu oso ospe onik.

–Bai, hori antzina izan nuen errakuntza batengatik izan zen. Azalduko dizut, duela berrogei urte herriko mutil bat gaixotu zen. Beste garai bat zenez, sendagairik ez neukan. Umea hil egin zen eta jendeak errua niri leporatu zidan.

–Ni ere anaiarentzat sendabide baten bila etorri naiz, baina ez da horren erraza, ez baitakigu ziur zer ote daukan.

13) Mikelek anaiaren sintomak zeintzuk ziren azaldu zion eta agureak froga batzuk gainditu behar zituela esan zion.

Mikelek handik erremediorik irtengo ez zela erabaki zuenez, agurearen oharrak jarraitu zituen. Lehendabizi, Anbotoko gailurrera igo eta han zegoen iturri sekretu bat bilatu behar zuen, baina ur tantarik bota gabe.

Bigarren frogan Lekeitioko portuta joan eta itsasertzeko belardian larrosa koloreko lore txiki-txikitxo bat hartu behar zuen.

14) Behin bi frogak gaindituta, agureak Mikelek ekarritako ura eta loretxoak nahasturik erritual bat egin zuen.

20) Mikel sendagaiarekin herrira bueltatu zen eta Jon, anaia txikia hartzerakoan, bat-batean guztiz osatu zen.

16) Mikelek eta Jonek agureari eskerrak emateko, herrira itzultzean lehen-lehenik tabernariarengana jo zuten honek merezi zuen zentzagarria emateko.

18) Hemendik aurrera, agurearen fama lehengoa bezalakoa izan zen, eta Mikel eta Jonen sendiarekin harremanetan jarraitu zuen, horrela guztiak zoriontsu bizi izan ziren.

Ipuin tailerrerako beste zenbait prozedura

Ipuin Tailerrean landutako zenbait alternatiba, ariketa eta prozedurazko eduki aurkeztu nahi dizkizuegu.

Ariketa horietako zenbaitsu, geure ikastetxeetan frogatu ditugu eta emaitza arrakastatsuak lortu ere, beste proposamen batzuk, ordea, beste etapa eta mailetako kideek esperimentatu dituzte. Uste dugu ariketa horietako asko helburu desberdinekin egin daitezkeela eta are gehiago, inguru-ne sozial desberdinetan.

–Eskolan komunikaziorako espazio alternatiboak irekitzeko balio dezakete eta halaber, adierazpidea eta sormena eragiteko eta irakurzaletasuna garatzeko.

–Liburutegian, etxean zein eskolan bezala, irakurzaletasuna bultzatzeko baliabide ezin hobea dugu.

Oro har, eta edonoiz, taldearen batasuna eta identitatearen eraketa errazten ditu.

Ariketen erabilpen eta diseinuan aurrera jarraitzeko, oso komenigarria da ondokoa kontuan hartzea: narratzerakoan gure ikasleak zirikatzen ditugula, narrazioak sentikortasuna estimulatzen baitu eta era berean afektibitatea, irudimena, eta oroimena ere.

Jarraian aurkezten dizkizuegu DBHn landutako proposamen eta prozedura batzuk, bakoitzak ariketa eta aplikazio zerrenda bat dakarrela. Ariketa batzuk beste etapetan erabili dituzte, Lehen Hezkuntzan, esate baterako.

Irakasleak bere ikasleak ezagututa erabakiko du zein den ariketarik egokiena egiteko edo aldatzeko.

Lehen ariketa: Ipuin bat kontatu (narratu) ondoren, ikasleei eskatu berriz konta dezaten (ahoz zein idatziz) istorio hori beraien hitzak erabiliz.

APLIKAZIOAK: Ariketa honek trebezia intelektualak eta ahozko adierazpidea garatzen laguntzen du, eta lagun dezake irakurketarako zaletasuna eragiten ere, baldin eta esaten badu non irakurri behar duen kontu hori edo antzekorik.



Bigarren ariketa: kontu bat narratu ondoren, ikasleei eskatu eszenarik gogokoenak ilustratzeko, ilustratutako eszena horiek haien etxera eramateko, eta hor berriro, konta dezatela kontu hori. Hurrengo egunean ikasgelan bertan plazaratuko du haren esperientzia.

APLIKAZIOAK: Ariketa honek balio lezake trebezia intelektualak, espresio plastikoak edo ahozkoa garatzeko eta gurasoak, seme-alabak eta eskola harremanak bultzatzeko.

Hirugarren ariketa: Kontu bat kontatu ondoren, aurrean daudenei eskatu istorieta edo komiki antzeko zerbait bihurtzeko.

APLIKAZIOAK: Honek balio dezake trebezia intelektualak eta adierazpide plastiko eta ahozkoa (edo idatzizkoa) garatzeko.

Laugarren ariketa: Kontu bat narratu ondoren, aurrean daudenei amaiera aldatzeko eskatuko diegu (denen artean egin dezakete edo taldeka edo banan-banan, idatziz zein ahoz).

APLIKAZIOAK: Ariketa honek balio dezake taldeko jolasa bultzatzeko, trebezia intelektualak garatzeko edota ahozko adierazpidea (ahoz zein idatziz) garatzeko eta baita taldeko integrazioa bultzatzeko ere.

Bosgarren ariketa (ipuinak aldatzen): Kontu bat narratu ondoren, ozenki berreraiki (ikasleek parte hartuta) ekintza nagusien haria; geroxeago pertsonaia edo egoeran edo kontestu, natura edo gizartean aldaketaren bat sartu. Horrela eskatu ahal diegu ipuina berriro sortzea edo aldaketak gehitzea.

APLIKAZIOAK: Ariketa hau erabilgarria da ondorengo kasuetarako: taldeko jolasa bultzatzeko, egoera edo arazoen konponketen inguruan iritziak eztabaidatzeko, plazaratzeko eta adierazteko.

Seigarren ariketa: (ipuin etiologikoak eta jatorrizkoak sortzen). Ipuin etiologikoak edo jatorriari buruzkoak kontatu ondoren, ikasleei jakinarazi nola azaltzen duten ipuin hauek lehenengo gizakia landare edo animalien agerpena.

Geroago beste fenomeno interesgarri batzuk adibidez (itsasoak nola izan zituen lehenengo olatuak, ardiek zergatik esaten duten be, be ...) edo horrelako gertaera interesgarriei jatorri bat asmatzeko proposamen bat egitea. Azkenean, ipuin hauek idatziz eskatuko dira.

APLIKAZIOAK: honek honako helburuetarako balio du: taldeko jolasak bultzatzeko, trebezia intelektual berriak garatzeko, ahozko (ahozko zein idatzizkoa, kasuan kasu) sormena eta adierazpidea indartzeko eta abar.

Zazpigarren ariketa: Kontu batzuk narratu ondoren, aurrean daudenei beraien kontuak sor ditzatela eskatu, irakasleak emandako hasierako esaldi edo ahapaldi batetik abiatuta.

APLIKAZIOAK: Ariketa honek ondorengoetarako balio dezake. Taldeko jolas bat bultzatzeko, ahozko sormena (ahoz zein idatziz) eta adierazpidea garatzeko; taldeko integrazioa bultza dezake eta baita irakurzaletasuna ere, baldin eta esaten badiegu non irakurri behar dituzten ipuin hauek edo antzeko beste kontu eta ipuinak.

Zortzigarren ariketa: Kontu bat narratu ondoren aurrean daudenei zera eskatuko diegu, ipuin horren antzespen edota egokitzapen bat egin dezatela: taldeen artean ekintza espezializatuak (hala nola egokitzapena, zuzentze lana, antzespena eta jantziak) eragin daitezke.

APLIKAZIOAK: Ariketa honek balio lezake trebezia intelektualak garatzeko eta ahozko adierazpidea (plastikazkoa eta eszenikoa) ere bultzatzeko. Horrez gainera lagun dezake, talde integrazioan eta iritzien eztabaidan.

Bederatzigarren ariketa: Entzuleen irudimena bultzatzen duten kontu batzuk narratu ondoren, zirkulu bat eginez, jezartzeko eskatuko diegu. Ondoren, hurrengo arauak jakinaraziko dizkiegu: Irakasleak progresiboki asmatzen duen ipuin bat narratzen hasi behar du, gero, alboan dagoen ikaskidearen sorbalda ikutu eta horrek jarraitu beharko du istorioa berehala, denbora eta erritmoa galdu gabe, irakasleak egiten duen modu "automatiko" berean jarraitu beharko du. Era berean, ikasle guztiek parte hartuko dute gurpila osatu arte. Azken jokalariak istoriaren amaiera asmatuko du, hori bai, jolasa hasi baino lehen, txanda bakoitzaren iraupena finkatu beharko litzateke. Ariketa honek beste aldaera batzuk izan ditzake.

APLIKAZIOAK. Ariketa honek honetarako balio dezake: ume, gazte edo helduen bilera sozialak animatzeko. Ikasgela batean ere egin daiteke, irudimena bultzatzeko eta ahozko adierazpidea (ahozkoa edo idatzizkoa) bultzatzeko. Trebezia intelektual batzuk (lotsa kendu) bideratzeko lagundu dezake. Oso ariketa ona da narratzaileen ahalmena trebatzeko eta ikasketa tailerretan oso lagungarria da.

Hamargarren ariketa: Mimikaz narratu. Talde batzuk egin, aparteko espazio batean, talde bakoitzeko kide batekin bildu eta kontu bat esan. Gero, ordezkari bakoitzak kontua bere taldeari kontatuko dio baina hitzak erabili gabe, mimikaz soilik. Talde bakoitzak denbora zehatza izango du ipuina berreraikitzeko eta mimikaz kontatutako ipuinaren idatzizko bertsio bat egingo du. Azkenik, entzule guztiak berriro bilduko dira eta talde bakoitzak egindako ipuinaren bertsioa irakurriko du.

APLIKAZIOAK: Ariketa honek balio lezake jolasteko gaitasuna duten ume, gazte eta helduen bilera sozialak animatzeko. Ikasgelan edo beste edozein tokitan egin daiteke, irudimena eta gorputzezko zein ahozko adierazpidea bultzatzeko asmoz. Trebezia intelektualen garapena lantzen laguntzen du eta taldekideen integrazioa bultzatzen du.

Nola sortu ipuinak okerretara (alderantziz)

Ipuin tradizonaletan agertzen diren baliabideekin eta funtzioekin erabat ohituta gaudenez, ipuin



bat atzekoz aurrera sortu dezakegu, ipuin eroa alegia, hankarik eta bururik gabeko ipuina. Nahikoa da pertsonaien funtzioak nahasten baditugu bata bestearekin edota funtzioak ipuin batetik bestera mugitu. Emaitza harritzeko modukoa izan daiteke. Froga ezazu zuk zeuk.

Aukera dezagun, beraz, askatasun osoz ipuinetan irakurri ditugun zenbait pertsonaia eta gure istorio propioa eraiki dezagun, ahaztu gabe ipuinetan agertzen diren haur jolasak, ipuin hasierak, amaierak eta abar. Ez daukagu inondik inora funtzioak ordenatu behar.

Adibidez Txano Gorritxok Hansel eta Gretelekin topo egiten du, eta basoan otso lotsati batekin adiskidetzen dira.

Beste adibide bat. Mari Errauskin Pernando Amezketarrarekin ezkontzen da eta alaba lirain bat izango dute: lamia.

Ikus-entzunezko tailerra

–Aukera ezazue ipuin tradizional bat. Ipuin baten moldaketa egin dezakegu. Narrazioa elkarrizketa bihurtu eta ondoren irrati-saioa egin. Ezer gutxi behar da: ipuina aukeratu, eta *zereginak banatu*: narratzailearen ahotsa, heroiarena, aurkariarena, laguntzailearena... zein izango den erabaki; jarraian *giro musikaren arduraduna izendatu* (efektu bereziak barne).

Guztion artean entzun ondoren, lan txukunenari, originalenari saria eman diezaiokegu.

–Arlo honetan beste ariketa bat garatu daiteke. Euskaraz bideo sisteman dagoen pelikularen bat aukera ezazue, “Willow” adibidez. Ikertu itzazue bertako pertsonaiak eta pelikularen argudioa, maitagarri-ipuin bat bilakatu.

–Txotxongiloekin eta kartoi zatiz egindako muralekin irakurritako ipuinak antzeztu daitezke.

Ipuin bat albiste bihurtu. Kazetaritza tailerra

Zer pentsatuko zenukete goiz batean egunkaria irakurtzean, hemengo berrien saila begiratzean honako albiste hau irakurriko bazenute:

PERNANDO AMEZKETARRA MARI ERRAUSKINEKIN EZKONDUKO DA.

TXOMIN IPURDI ATHLETICEK FITXATU DU.

Titular desberdinak idaztea proposatzen zaizue. Hautatu ezazue gustuko ipuin tradizional bat eta kazetaritza estiloan idatzi.

Beste prozedura bat ere garatu dezakezue. Egunkarietan dauden albisteetatik bat hartu, eta berori ipuin miresgarri bihurtu.

Marrazketa tailerra

Talde lanean, gelaz gela, ipuin bat aukeratu ondoren, Heziketa Artistikoko irakaslearen laguntzaz marrazki edo irudiak edo komikiak egitea da hurrengo proposamen hau.

Ez dugu zarratuta utzi nahi proposamen didaktikoen bilduma

hau; bilduma honen asmoa ez zen araudi moduko bat izatea, beste irakasleek euren asmamenaren eredu legez erabiltzeko tresna baino. Rodari edo Lodi erreferentziatzat hartu ditugu gure kasuan. Eurei eta euren inguruan trebetasun ludikoak berregiten ikasiz joan direnei transmisiobide apal legez eskaini gura diegu, euren moduan guk ere uste dugulako heziketan ezin daitekeala ezer kopiatu, denak hartzen duelako esangura zehatza eta berezia maisu horrek ikasle horiekin historiaren une horretako giza inguru horretan daukan harremanean. Baina horretatik guztitik ikasgelan bertan esperientzia berriei ekiteko bultzakada, adorea, hatsa eta kemena atera dezakegu. Francisco Tonucciren berba horiek ondo adierazten dute proposamen didaktikoen ikastaro batek zer izan beharko lukeen: ez gida bat, eta gitxiago pedagogia tratatua, bai ordea, iradokizunen bilduma bat, bertatik norberak sormenaren oinarritzat beharrezkoa izan daitekeena ateratzen jakin dezan.

Ikusi dugu Rodarik Bretoni kopiatzen ziola. Eta kopiatzeak eredu horrenganako miresmena eta estimazioa esan gura zuela. Hain zuzen ere horrexegatik, gure lanak gurari sakona bilatzen du (irakurketa eta idazketa ikasgelarentzako jolas interesgarri izatea) egia bihurtzeko ahaleginean erreferentzia lerro batzuk eskaintzea.

Gaur, idea hauen sorleku izan zen Linguistika Masterra egin zenetik urte bi joan direnean, Logse-an honezkero Oinarrizko Hezkuntzako mailetan ezarrita bigarren mailako hezkuntzari dagokionez, Batxilerreko gutxieneko irakaskuntzen gaineko jarraibideetan, hizkuntza eta literatura irakasgaiei buruz, ardatz

nagusi legez ikasleen trebetasun eta abilezia dikurtsiboa agertzen zen. Eta komenigarria da gogoratzea, Logsearen balio ezkutuen gainean oraintsu egindako anilisi batean ikusi daitekeelako zein neurritan geratzen diren gutxietsita gaitasun batzuk, esaterako, sormena eta irudimeneko trebetasunak bultzatzea, edo didaktika berri batetik abiatuz bultzatu gura direnak. Dena dela, eta hezkuntza programei buruzko diagnostikoak alde batera utzita, ikasgelako egunean-eguneango lanari ekin behar diogu, Rodarik bere *Fantasiaren Gramatika* liburuaren hitzaurrean bikain laburbiltzen duen asmoa egi bihurtu dadin:

Orrialde hauek irudimenak hezkuntzan lekua izan behar duela pentsatzen duenari baliagarriak izango zaizkiolakoan gaude; baita umeen sormen ahalmenean konfiantza duenari eta hitzak izan dezakeen liberazio balioaz jakitun dagoenari ere.



5.

Bukaera gisa

ON MIELEN AHOLKUAK

Bazen lurralde haietan herritar guztiek kontalari apartetzat zuten agure maitagarri bat. On Miel zuen izena.

Behin, ipuin kontalaria izan nahi zuen gazte bat joan zitzaion On Mielengana aholku bila:

–Kontalari agurgarri hori, zu bezalako ipuin kontalari izateko, zer egin behar dut?

On Miel jakintsuak zera adierazi zion:

–Gazte, denok gara gai istoriak eta ipuinak kontatzeko. Kontalari izateko nahia behar duzu izan; lehen bidea nahiarena eta gozatzearena da. Horixe da lehen pausua. Ipuinaren magia entzuleei gogo handiz igorri behar diezu.

Gazteak ondoren zera erantzun zion:

–On Miel jauna. Bide hori egina dut eta benetan diotsut ipuin kontalari izateko desiratzen nagoela.

On Mielek gazteari begiratu zion eta laster ohartu zen gazteak egia esaten ziola.

–Ederki. Sinesten dizut. Baina hori ez da nahikoa. Kontalari bilakatu nahi baduzu, horra hor bigarren pausua: ipuinak entzuten ikasi behar duzu.

Gero eta harrituago zegoen mutila. Txiki-txikitatik ipuin franko kontatzen zizkion amonak eta beraz ohitura handia zuen ipuinak entzuteko eta aparteko zaletasuna eskuratua zuen gaztarotik.

–"Behin bazen Mari Errauskin izeneko neska... eta bat-batean...". Era horretako istoriak kontatzen zizkion amonak eta bera harri eta lur gelditzen zen halako istorioen aurrean.

–Oraindio bada zerbait aintzakotzat hartzeko –esan zion On Miel zaharrak–. Ahor: ipuinak kontatzen hastea datorkizu.

Ipuinak kontalariaren barnean bizirik dirau. Kontalariok sentitu egiten dugu ipuina, eta berarekin batera bizi. Baina azken finean, hiru gara kontaketan: ipuina, publikoa eta kontalaria. Ez ahaztu, hiruren arteko gauza dela, elkarlana. Hori da hirugarren bidea.

Laster jabetu zen mutila mezu horren garrantziaz. Orduan zera erantzun zion On Mieli:

–Horrela egiten ahaleginduko naiz.

Kontalari zaharrak ahopeka esan zion:

–Hiru bide horiek igarota, ipuin kontalari jardungo duzu, baina laugarren bide bat dago langai: Mundu zabaleko ohitura, usadio eta ekanduen berri eduki beharko duzu eta zer esanik ez, gure ahozko tradizioaren bilduma eta langintza nagusiak ezagutu beharko dituzu: ipuin, kontu, mito, tradizio, ohitura, leiendak ...

Gaztea artega zegoen eta ipuin-kontalari izateko zama haundiegia ez ote zen izango pentsatzen hasia zen. Kontalari trebearengana hurreratu eta itaundu zion:

–Halaxe egingo dut maisu goren hori. Baina bide horiek guztiak bete ondoren, kontalari bihurtuko naiz?

–Bide horiek guztiak garrantzizkoak dira, baina gogoan hartu esaldi esanguratsu hau behin betiko: “Bihotza isuri eta gainezka dagoenean mintzo da ahoa”. Eraman ezazu zurekin esaldi hau, hori baituzu bide zuzena benetako kontalaria izateko.

Honelaxe amaitu zen elkarrizketa On Miel ipuin kontalariaren eta gaztearen artean. Gaur egun, herriz herri eta hiriz hiri entzun dezakezu gure ipuineko gaztea, kontu kontari bideetan zehar, kontatzeko artearen funtsa ezin hobeto barneratuta, On Miel jaun gorenari esker, noski.

Irakasleentzako gida



Atal honetan ipuinak kontatzeko eta lantzeko proposamen batzuk aurkeztu nahi dizkiegu irakasleei. Ipuin bat kontatzeko klabeak agertuko ditugu, besteak beste ipuinen ezaugarriak, ipuinak kontatzeko gomendioak, nola kontatu ipuina, narratzailearen lana. Azken batean teknika batzuk emango ditugu ipuinak kontatu ahal izateko.

1. KONTATZEKO DIREN IPUINEN EZAUGARRIAK

Ez da berdina haurrak ikusi, orrialdeak bere ulermen eta umorearen arabera aurrera eta atzera ibili, eta berak berezkoa duen erritmoa jarrai dezakeen ipuin idatzi bat, edo haur bati edo haur talde bati gure ahots eta keinu soilen bitartez azalduriko ipuin bat kontatzea. Horrela, *kontaturiko ipuinak* zenbait baldintza bete beharko ditu, eta horien menpean egongo da entzule txikien aurrean izango duen arrakasta edo porrota.

Orohar, ipuin bat kontatu ahal izateko ipuinak *argumentu* bat eduki behar du. Ohiko eskemari kasu eginik, honako hau izan daiteke eskema: *pertsonaien* aurkezpena, ebatzi behar den *egoera gatazkatsua,* protagonista edo protagonisten ekintza eta *korapiloa* askatzea. Beste batzuek, haurrek ezaguna duten protagonista baten alde dibertigarri edo bitxi bat azal dezakete, normalean, hala ere, protagonista edo protagonistak inplikaturik egongo diren nolabaiteko ekintza bat egotea da balio duena, eta gatazkaren irtenbidera azken momentura arte ez iristea. Beste eskema batzuk ere baliagarriak izan daitezke baldin eta istorio guztiaren korapilo edo lotura egingo duten protagonista edo protagonistak baleude eta interesa kendu edo istorioa ulergaitz bihurtuko luketen bukaezinezko pertsonaiak edo egoera paraleloetan galtzen ez badira.

Hori dela eta, garrantzitsua da kontaketarako kontuan hartzen diren entzuleak, haurrak zein adinekoak diren jakitea: 3 edo 4 urteko haurrak badira, beharrezkoa izango da istorio errazak bilatzea, pixka bat hunkigarriak, ekintza lineal bat edukiko dutenak eta ez oso luzeak (ez daukate arretarako ahalmen handirik). Oinarrian animalien ipuinak aurkituko ditugu, ipuin kateatuak, pertsonaia asko irteten ez den kontaketa motzak, e.a.

Aitzitik, entzuleek 6 edo 7 urte izanez gero nahiago dituzte giza protagonistak, ekintzak zertxobait konplikatuagoa izan ahalko du, eta istorioan bigarren mailako pertsonaiak ere azaldu ahal izango dira. Umorea, maltzurkeria, hitz-jokoren bat eta antzeko elementuak adin horretako neska-mutilek ulertuko dituzte. Ipuinak zertxobait luzeagoak izan daitezke, baina beti ere entzulea ez nekatzeko ahalegina eginez.

Ipuinen luzerari dagokionez ez da kezkatu behar: momentuan konturatzen da noiz moztu behar den istorio bat haurrak asperturik daudelako. Berdin gertatzen da alderantziz ere: lilurаturik eta detaile bat bera ere galdu gabe daudela ikusten badugu, deskripzioetan zerbait gehia-

go luzatu ahal izango gara, elementu berriren bat gehitu... Baina orokorrean hobeto da ipuin baten kontaketa 10 edo 12 minutu baino gehiago ez luzatzea. Entzuleak ez badira aseturik gelditu, beti gelditzen da beste ipuin bat kontatzeko aukera.

ZENBAIT GOMENDIO

1. Ipuin bat kontatzeko beharrezkoa da kontatzailearen gustukoa izatea, berak ere dibertigarria izan dezan; azken finean, goza dezan ipuina transmititzen. Ipuin bati xarmantasunik aurkitzen ez badiogu, ona dela esan badigute ere, alperrik izango da azaltzeko ahalegina egitea. Seguruenik, haurrei ere ez zaie gustatuko, izan ere ez baikara magiarik igortzeko gai izango.

2. Mundu guztiak balio du azaltzeko, aldez aurretik pixka bat prestatzea baino ez da behar. Hasteko, ipuina buruz ondo ikasi eta ondoren konfidantzazko haurrekin frogak egin daitezke: arreba txikia, auzokoaren semea... Ondo joanez gero, eta behin beldurra galdu ondoren, gela guztiari edo haurren klubeko umeei aurkeztu ahal izango diozue ipuina.

3. Ipuinak ez dira ahots hutsez azaltzen: keinuak, begiak, eskuak..., denak balio du kontatzen ari garena espresiboago egiteko. Era berean, oso garrantzitsua da ahotsaren doinua: ipuina bizi izango bagenu bezala azaldu behar dugu, izan ere, ahots hotz eta monotono batez nekez edukiko ditugu entzuleak arretaz.

4. Ipuin motak aldatuz joan behar dira. Ezin dugu beti txiten eta txerritxoen istorioak edo printzipeak eta maitagarriak baino irteten ez diren ipuinak kontatzen egon. Hobeto da denetarik pixka bat ematea: ipuin herrikoiak eta egile modernoen ipuinak, animaliak protagonista dituzten istorioak eta gizakienak, fantasia handikoak edo errealistagoak, e.a. Liburuekin gertatzen den gauza bera gertatzen da, hobeto da idazle desberdin ugari eta estilo desberdinak ezagutzea, genero edo estilo berera mugatzea baino, hori beti izango da eta.

NOLA KONTATU BEHAR DEN IPUIN BAT

Hizkuntza argia

Ipuina argi eta garbi kontatu beharko da, hitz bakoitzari dagokion ahoskera emanez, haurrak hizkuntza zehaztasun osoz ezagutu dezan. Hau da, fonetika aldetik, argia, ongi modulatua.

Ahotsa

Ez da oihukatu behar. Garrantzitsua da ahotsa sekula ere ez behartzea, baina ez da baxu ezta otoitzeko monotoniaz hitz egin behar ere. Ahots goran egindako irakurketek ahotsa mugatu eta

bolumena hobetzen dute. Oso garrantzitsua da ahotsa atsegina izatea, argia eta ondo modulatua. Haurrek asko estimatzen dituzte ahots sinpatikoak.

Ziurtasuna

Kontalariak ipuina ondo badaki, argi ikusten da eta kontatzeko plazerra sentitzen da, ziurtasunez kontatuko da, duda-mudarik gabe, kontatzailearen begi aurrean gertatzen ari balitz moduan. Haurrak, aparteko munduari buruzko gauzetan hezita dagoen andereño miragarria ikusi behar dute ipuina kontatuko duen kontalariarengan. Horregatik kontakizuna ondo menperatu behar da. Gaitasuna eduki behar da zerbait ahaztu edo gaizki egindakoan hori alde batera uzteko.

Geldiro

Geldiro kontatu behar da, lasai, behar den denbora hartuta. Kontatuko den ipuinak aldez aurretik prestatua egon behar du, eta hori kontatzeko zenbat denpora beharko den jakinda.

Hautabideak

Kontalariak, ipuinarekin bat eginda, gertakizun batzuk bizkortzen eta beste batzuetan geldogeldo jostatzen jakin behar du. Interesagarriak ez diren pasarteak arinago kontatu ahal izango ditu, baina azkenak, ipuinaren ondorioak dauden lekuak, eta erdigunea, azpilana azaltzen duena, ziurtasunez irakurri behar dira.

Miss Bryant kontalari amerikarrak dioenez, narratzailearen animoak negozio bat bideratzen duenarena bezalakoa izan behar du, bukaeran makaldu arte ezin hobeto eramanez.

Istorioa seriotan

Kontalari honek beronek ohartarazten du istorioa serio hartu beharreko gauza dela. Ipuin bat moldatu eta buruz ikasi denean, ipuinak hori merezi duela ziur gaudelako da, edo gutxienez haurrek eskatzen dutelako; ondorioz merezi du ondo kontatzea.

Fonetika

Abentura errepikatzen den ipuinetan hitz berbera errepikatu behar diren esaldiak baleude, entonazio desberdinez esango dira momentuaren larritasunaren arabera. *Arrantzalea eta bere emaztea* ipuinean, arrantzaleak ezin dio zarboari lehen aldiz deitzen dion entonazio berberaz deitu bere emazteak jainkosa bihurtzeko eskatzen dionean, hau da, azken aldian. Otsoak ere lehenengoz ahuntz-kumeei deitzen dien ahots erlatsaren ordez beste ahots finago bat erabili beharko du berriro ere deitzen dienean. Eta geroago datorren ahuntz-amak, nahiz eta otsoak

esaten dituen hitz berdinak errepikatu, ahots naturalago batekin esan behar ditu. Gogora dezagun, beste norbaitekin izan dugun elkarrizketa kontatzerakoan, bere ahotsa eta keinuak imitatzen saiatzen garela.

Beraz, doinu monotonorik ez da erabiliko eta ahoskatzean, estiloan eta entonazioan xalotasuna bilatuko da.

Barre eragin

Lau urtetik zazpira bitarteko haurren artean, dena alderantziz ulertzen duen kokoloaren ipuina da eta izango da beti atseginen hartzen dutenetariko bat. Xelebrekeria, haurrak barrez hasi baino lehen susmatzeko moduan kontatu behar da. Txikitxoak ez dira sentibera umorismoarekin, horrek izpirituaren heldutasuna adierazten baitu beti, eta haurrek kontatzailea barrez hastea behar dute ondoren beraiek barrez hasteko. Kontatzaileak xelebrekeria serio kontatzen badu, egoera komikoa haurrek eta nagusiek ere, ulertu gabe pasatu daiteke. Egokia litzateke haurrak ohartaraztea: kontatuko dizuedan ipuina, ipuin barregarria da; orduan haurrak barre egiteko prestatuko dira eta xelebrekeria oso-osorik gozatuko dute.

Barre egiten utzi

Ez eten, utzi barre egiten unea pasatu arte eta gero jarraitu kontatzen.

Kontatzailearen jarrera

Honela dio Miss Clarkek: "Guk, ipuin kontalariok, ipuinzaleen bidea hartu behar dugu, kontatzea gure bizitzako gauzarik garrantzitsuena izango balitz bezala. Batzuetan giro eskasa sortzen da, haurrak urduri daudela, edo gu nekatuta, buruko minez eta urduri; baina gure ipuinarekin bat eginda bagaude dena jasateko gai izango gara. Ipuina gure laguna da eta guk bertan sartu eta hasteko ahalegin bat egiten dugu. Ez dugu baztertu beharreko kontutzat hartuko, borondate onez baino, eta esku artean zerbait interesgarria, maitagarria eta ederra daukagun ziurtasunez, gure zoriona hori zabaltzean balego moduan. Ez da ipuin soil bat, *gure ipuina da*, eta haurrek parte hartu behar dute ipuina beraiena ere bihurtuz. Beharrezkoa da horretaz ziur egotea."

Nola lortu berotasuna? Ipuinaz zaletu eta berarekin bat eginez.

Bere buruarengan konfidantza

Kontalariari ez zaio une bat bera ere faltatu behar. Hizlaria une batean ahuldu edo ahaztu egin daiteke; ipuin kontalaria ez, ordea, ezen momentuan bertan, entzule txikiak bera baino nagusiago sentituko ditu eta haien arreta galduko luke. Beharrezkoa da bakoitzaren gainetik egotea beti, eta zer egiten ari den ondo jakitea.

NARRATZAILEA

Hasteko mundu guztia ez daiteke izan ipuin kontalari. Sarritan zaila da esatea norentzat ote den errazago kontatzea: txikientzat ala helduentzat; desberdina dela esan genezake.

Ipuina zuzenduko zaion haurraren adina jakitea komeni da, zenbait liburu irakurri, eta batez ere ikuskatzea, haur bakoitzak bere bizitza, familia eta giro propioa daukan gizabanakoa baita. Ume batzuk lotsatiak dira, beren barruan gordeta daude. Ipuina guztientzako zabalik dago eta guztiei eskaintzen die entzuteko aukera.

Haurrentzako, ipuin kontalaria ipuinaren barruan egon behar da beti: hau da, ipuinean sinestu behar du, eta bere entzuleriak sentitzen duen besteko interesa sentitu berak ere.

Nahiz eta mugitu, beharrezkoa da, bestalde, egoerak eta pertsonaiak bata bestearengandik bereiztea. Bakoitzak bere estiloa eta izaera du, eta hori begirada, keinu, ahots doinu, gustu eta abarren bitartez lortuko da.

Txikiei kontatzea atsegin izango du. Zerbait maitasunez egiten denean, arte-lan eder bat bihurtzeko aukera du horrek. Txikiekin bat etortzeko ez da txiki bihurtzeko beldurrik izan behar.

Kontakizunean sinestu egingo du. Gustatzen bazaio, sinestu egingo du, eta txikiek, pertzepzio zentzu ikaragarria dutenez, gure asmoak zeintzuk diren konturatu eta berehala ulertzen dute.

Kontakizunean bete-betean sartuko da eta miau egin behar badu miau egingo du; abestu behar badu abestu egingo du, edo negar egin behar badu, negar egingo du. Haurrek ez dute aparteko traturik behar ipuin baten kontakizunean.

Hobetu egin behar da. Edozein gauzatan ipuinetarako gaiak aurkitzen dituen jendea dago; baina beste batzuek ez dituzte hain erraz aurkitzen, hasberriek batez ere. Nahiko da irakurtzea. Haurrei zuzenduriko liburu asko irakurriz, piskanaka-piskanaka esaldi eginak aurkitzen dira; eta aipatutako liburuetan erraz aurki daitezke. Ariketarik onena, norberak bere buruari entzuteko ipuin bat ahots-goran irakurtzea da.

Zer egiten du

*Ahotsa findu. Aurretiaz ere hitz egin dugu honi buruz eta argi gelditu da ahotsa pertsonaiekin estu-estu lotuta egongo dela. Horrela, otsoak beti izan du ahots sendoa, printzesak eta maitagarriak ahots melodikoa.

Laburbilduz, pertsona lodi batek ahots lodia du; pertsona txiki batek ahots ahula. Ahotsa sujetuaren erakusgarria da.

*Hizkuntza aukeratu. Egia esan, entzuleriaren lexikoa murritza da. Horretara, hitz zailen bat erabiltzen denean (edo bokabularioa aberastea ezinbestekoa bihurtzen bada), nahikoa da

esaldi baten bitartez adieraztea. Adibidez: “urtxintxak motots itxurako isatsa zeukan, hau da, bere isatsa lumak bezain arinak diren ilez beterik zeukan”. Honek hitzaren irudi osoa emango du.

Hitz ezezagun bat erabiltzen denean, haurra etenda gelditzen da eta ez du oso ondo jarraitzen kontakizunaren hurrengo pausua. Batzuetan kontaketaren haria galtzen du, eta hori lastima da.

Esaldi-estribiloak edo errepikapenak, leloak erabiliko dira, belarrira ondo eman eta atseginak direlako.

Ahoskerak garrantzia handia du. Kontuz ahopean esandako hitzekin.

*Keinuen bitartez kontaketa animatu. Ez dago keinu asko egin beharrik, arreta ipuinean jarri behar baita. Hala ere, beharrezkoa da zenbait keinu egitea eta keinu hauen bitxikeriak askoz garrantzitsuagoak izatera eramango ditu.

*Entzule txikien arretari eutsi. Haurrak kontalariaren aurrean bilduko dira (inoiz ere ez kontalariaren atzean) eroso ikusi eta entzuteko, baita asko direnean ere.

Maiz gertatzen da haur batek bere iritzia emanez kontakizunean parte hartzea. Hori kontuan izan behar da, horrek batzuetan ipuinaren trama aldatu egiten baitu.

Beste batzuetan hitz batek, espresio batek edo keinu batek barre eragiten die. Ez da dudamudatan ibili behar umore on horren eragilea berriz errepikatzeko.

Ipuin berriak gustatzen zaizkie, nahiz eta ez dituzten baztertzen jadanik ezagutzen dituztenak ere. Azken kasu honetan, kontuz hanka-sartzeekin edo fantasiekin; berriro ere aurreko kontakizunean entzundako gertakizunak era berean entzutea gustatzen baitzaie. Hori ziurtasun kontu bat da.

Izpiritu beraren ildotik, aurretik ezaguna izanik beste lekuren batean mugitu eta abentura desberdinak gertatzen zaizkion pertsonaiaren bat aurkitzea dute gustuko.

2. EUSKAL FOLKLORETIK HARTUTAKO AHOZKO BALIABIDEAK

Atal honetan hainbat eta hainbat urtetan etxerik etxe, sutondoz sutondo kontatutako esaera, esamolde, hitz jolas eta joko aurkituko dituzu. Ahoskotasunaren erregistrotik hurbil diren esapide hauek gelan kontatu, ikasi eta erabiltzeko moduan daude. Kontu-kontari jarduterakoan oso erabilgarri direlakoan gaudenez, zerrenda bat prestatu dugu, besteak beste ipuin hasierak, ipuin amaierak, esaerak, hitz jolasak eta abarrekin.

Ipuin hasierak

Zeruan urdina,
lurrean belarra,
hondartzan harea,
itsasoan ur tantak
eta nire ahoan ipuinak.

Behin bazen herri bat ipuinak aitona-amonatatik aita-amatara zabaltzen zituena, horrela ume guztiek gogoan izaten zituzten. Egun batez, agure-atso batzuek jakintsu ikerzale bati kontatu zizkioten eta honek, ipuinak gordetzeko idatzi eta altxor batean sartu zituen.

Guk, kontalari, musikariok, altxorra zabaldu eta ipuin batzuk hautatu ditugu antzeztuz berpiztu nahian. Zuek ikusi, bizi, gozatu eta agian gorde, gero konta ditzazuen.

Bazen behin mendi bat, mendi eder bat. Bidaia bat egin ondoren, itsas bazter hartan eseri zenean, bere oinak uretan sartuta, entzun zituen berbetan gizon, landare, abere eta mamuak. Denok elkarren artean hizketan, eletan. Gau batez, mendi hori ikustera joan nintzen eta bertan entzundako ipuinak, kontuak, istorioak eta gertaerak kontatu zizkidan, adiskide bati bezalaxe. Gaur mendiak kontatutako ipuin batzuk kontatuko dizkizuet.

Behin bazen gizon zahar bat, ipuin zahar hauek aspalditik gogoan zituena. Egun batez, jakintsu ikertzaile bati kontatu zizkion. Hark ipuinak gordetzeko idatziz eman zituen. Guk, istoriolari eta musikari, ipuin bilduma horretako batzuk hautatu ditugu hitzez eta musikaz berpiztu nahian.

Zuk entzun, gogoan hartu eta agian konta itzazu.

–Behin batez.
–Askotan gertatzen den bezala.
–Aldi batez berria zabaldu zen.
–Asko munduan bezala.
–Deba inguruko etxe entzutetsu batean.
–Behin bazen.

Behin baziren Peru eta Marixe,
haiek zeukaten erbi txikixe,
ematen zioten aza berdie,
eta egiten zuen kaka berdie.

Istorio hau haizeak kontatu zidan
basamortuko oasi batean
izarren artean
lo egiten nuen
gau hartan.

Ipuin amaierak

–Haiek han eta gu hemen, gure kontuak Flandesen, gure txepetxak bizkarrean hezurra, eta gure ipuin guztia gezurra.

–Hala bazan ala ez bazan, gu ibili gara kalabazan.

–Hau hola bazan, sartu dadila kalabazan, eta errementatu dadila Bitoriako plazan.

–Hori hala bazan, sartu dadila kalabazan, eta irten dadila Kanalako baxan.

–Egia bada sakelan sar. Gezurra bada, ez golkoan har.

–Egia bada sinets, ez bada egia ez sinets.

–Bizi izan ziren arras urus.

–Han bizi izan ziren ezin izan urusago.

–Geroztik pasatuez ez dut izan berririk.

–Hori ez balin bada egia, hola gerta dadila.

–Hori ez balin bada, halatsu, berdinak ez badira, baina bai berdintsu.

–Hala zan, deabru zaharra dantzan.

–Hala bazan ezpazan, Bitoriko plazan, saguzaharrak dantzan.

–Ongi bizi izan baziren, ongi hil ziren. Orduan han nintzen, eta orain hemen.

–Egia, egia, ohe azpian txerria.

–Egia, errotan gari berria, Antziolako ohe azpian aingeru kaskazuria.

Egia, sudurraren ondoan begia,
haren ondoan kopeta irudi duela Frantziako tronpeta,
begiaren ondoan sudurra, irudi duela kriseilu-muturra;
sudurraren ondoan kokotsa, irudi duela gaztain-morkotsa.

Eta baziren bi sai. Batek zuen buztan handia, besteak buztan txikia. Buztan txikia zuenak izan balu handia, nire istorioa izango zen luzea. Baina txikia zuenez, istorioa ere izango da laburra eta honetan gelditzen da.

Asko munduan bezala, baziren bi bele. Batek zuen buztan luzea, besteak buztan txiki-txikia. Buztan txikia zuen hark izan balu luzea, nire istorioa izanen da luzea, baina laburra zuenez, nire istorioari ere heldu zaio errematea. Nahi al duzu berriz kontatzea?

–Bai.

–Nik ez dizut bai esateko esan, asko munduan bezala bazirela bi bele kontatzerik nahi duzun baino: batak zuen buztan luzea. Besteak buztan txiki-txikia. Buztan txikia zuen hark izan balu luzea, nire istorioa izango zen luzea, baina laburra baitzuen, nire istorioari heldu zaio errematea. Nahi al duzu berriz kontatzea?

–Ez.

–Nik ez dizut ez esateko esan; asko munduan bezala bazirela bi bele kontatzerik nahi duzun baino; batak zuen buztan luzea, etabar...

Hiru zango ditu haur milindreak:
ezker zangoa bata,
eskuin zangoa bia,
hirugarrena garrasia,
nahi al duzu berriz esatea?

Asto belarri tristea,
bata bezala bestea,
bata bezala bestea
asto belarri tristea.

Alajaina!
ipuina apain-apaina,
erregearen hazaina
bikan-bikaina!

Errege batek ba omen zeuzkan hiru alaba,
jantzi omen zituen zuriz,
jantzi omen zituen gorriz,
nahi duzu esatea berriz?

Bele batek ba omen zeuzkan
hego bat oso motza,
eta bestea oso luzea,
hauxe da kontu luzea.

Errege batek hiru alaba zituen:
janzten zituen gorriz,
janzten zituen zuriz,
janzten zituen horiz:
kontatzea nahi al duzu berriz?
Bi hego ditu beleak
beltza bata
beltzago bestea
nahi al duzu berriro kontatzea?

Egia ala gezurra
begi bien artean sudurra.

Eta hori hala bazan sar dadila kalabazan
eta atera
zure herriko enparantzan.

Eta nik kontatu dizuet
niri kontatu moduan,
hala izan edo ez izan
zuen bihotzak ipuin hau entzun dezan.

Istorio misterio latz
ehun zorri eta berrehun bartz,
horreik guztiok dauzanak
izango dau non egin hatz.

Sinetsi nahi duenak
bertara joan eta ikus dezala
neuk diotsuet hau egia dela
gari heldua berdea ez den bezala.

Zotz egiteko formulak

Isabela-Manuela-Katalina
tente-mulente
tipi-tapa-ton
Martin-zapaton
kaskabela tronpeta
lau kilikon.

Kuku-miku kañola
kainaberea larrosa
pitxoke ta pitxoke
jaunak nora zoazte.
Kalean gora
kalean be(he)ra
biribiltxua alkate.

Eskuan daukat hazia
poltsan urregorria
amamatxuak balekia
aterako lidake begia.

Atxea motxea konilipan
zeure semea errotan
errota txikerra klin-klan
Katalina bentan korrentan
tipirripiton, Martin zapaton
kañabera tronpeta
lau kirikon.
Txirripi-txarrapa...
Txaust!
pispit ala koskot**?**

Atxea-motxea konilipan
zeure semea errotan,
joan nintzan basora
topa neban erbi bat
jaurti neutsan harri bat
atera neutsan ezkerreko
begi gorri handi bat,
zelemina kanpa...
txaust!
pispit ala koskot?

Atxa-mitxa zilarra,
joan joan olara,
ardi beltzen bilara.
o pitxon biribilton:
txin-txan-txon.

Txirristi Mirristi
Gerrena, plata,
Olio zopa, kiri salda,
Ura bero klik.

Martin Bonbin
Erregeren sorgin,
Kipula eta gatz,
Martin buru latz,
Egin ipurdian hatz.

Igarkizunen hasierak

Tipitaki, tapataki, zer ote den nork daki?

Zuriz bezti, burua urean, zangoa suan, zer da? Tabakoa.

–*Piipitaki, paapataki, nik baitakit* gauza bat: nor da ama erretzen duen seme gupidagabea? Kandelaren babila.

–*Asmabelar miriku*, zer den ba al dakizu: ama zango makur, alaba eder, eta semea dantzari? Mahastia.

–*Ikusi-makusi*, nik ikusi, errekaxta marrakaxta xakur errabiatu. Zer da? Orrazia.

–*Zuk gaizoto, nik gaizoto*, zer da?

Esaerak

Joxe mari
marabiri,
ipur-zuri
lau hanka eta
bost belarri;
pausuan pausuan
kakalarri.

Jose Mari kitarra
zazpi ontzako bizarra
hemendik eta Sondikaraino
botako leuke uzkarra.

Kaixo Joxe Bizente
hementxe gaude,

zu jarrita
eta ni tente.

Santi manti
txarri-buztanki
Santi baratzan
akerrak dantzan.

–Astelehena, atsolena; asteartea, atso-artea; asteazken, atsoazkena; osteguna, atso-eguna; larunbata, atso-olata; igandea, atso begi-handia.

–1, 2, 3, 4, 10, 14: aitak saldu nau; amak erosi nau, Beasaingo alkate zaharrak preso sartu nau.

–Asko daki zaharrak erakusi beharrak.

Bat: Katxin parrat.
Bi: hara bi, bata zu eta bestea ni. Zu bat eta bestea ni.
Hiru: hara hiru, Txitxalope, Txupira eta Kirru.
Hiru: kolkoak bete diru.
Lau: andreak galdu nau. Goseak galdu dau.
Bost: jo buruan eta kosk. Andreak seina egin dost.
Bost: agoan hagin eta hortz.
Sei: ilargian idi eta behi.
Zazpi: horiek badituk aski. Ez zabiltza gaizki.
Zortzi: otzara bete zorri. Bizirik ehortzi.
Bederatzi: sartzak ipurdian behatz bi.
Hamar: hik beti mar-mar.

Katxin bat eta Katxin bi
katxin putzura erori,
edan zuen pitxar bi
ez zen orduan egarri.

–Kutxi-kutxi, koipe asko ta urdai gutxi.

–Kutxi-kutxi, salda asko eta koipe gutxi.

–Agur: bidea luze ta pausua labur.

–Agur: ekarri lepo bete egur.

–Nola duzu izena?

–Etxean txotxo eta kanpoan gizena. Etxean txotxolo...

–Gure seme belasko, seme bat eta hura asko.

–Mari Belasko, okela gutxi eta salda asko.

–Zuk esateko, ez da gauza asko.

–Mari oilasko, Lekeitioko atsoek bizar asko.

–Ene Maria!
–Urak daroa garia!

–Maria!
–Orratza eta haria!

–Maria!
–Orion trumoia eta Markinan euria!

–Ai Maria!
–Hortzik ez duenak, ogi mamia.

–Zenbat Mari, hainbeste Peru. Mari zelako, odolkia halako.

–Kaixo! hik arre eta nik so.

–Pan!
–Ebaki eta jan!
–Zopa!
–Ez daukanak topa!
–Patata!
–Ez dadila falta!

–Lenteja!
–Ez hadi keja!
–Olio!
–Ozpinaren nobio!
–Zezina!
–Hamaikak badik ezina!

Taloa ta sardin
ogia ta gatza
Katxin kalabaza

–Ai-ai-ai, astegun guztiak balira jai! alferrak hori nahi.

–Han zulo eta hemen zulo, hiru mila kakazulo.

–Alperra beti gazte.

–Antzina baten gauza nintzen, orain egin naiz agura, emazteak eta umeak ez nabe ikusi gura.

–Zereko zeraren zera zertu da zerean.

–Itsuak ikusgura, errenak ibilgura, gorrak entzungura.

–Enero, febrero, marzo, abril: pepetin kalboa ondo dabil.

–Enero, febrero, marzo, abril: aitonak akuluz jo ta oiloak hil.

–Enero, febrero, marzo, abril: errotako popotxo dantzan dabil.

–Hi ta ni bi: hire amak titi bi.

–Jose Mari gitarra, ahuntzen ainako bizarra, botako luke botako luke, Frantziarainoko puzkarra.

–Atso zaharra balendrin, hire bentak egin din, hortzak ere joan zaizkin, sorgin zaharra dirudin.

–Baserritarra, tirri tarra; bota uzkarra, jan bedarra.

–Txominek dauka dendea sagar ustelez betea, denda hortara bazoaz, joko zaitue mazoaz.

–Bueno, señor: eztago gure etxean inor.

–Gabaz erronda eta goizean logura, neska nagiak horixe gura.

–Gure pozak pozura, amets zoroen modura.

–Hi paleagaz kaka batzen, ni koilareagaz esnea jaten.

–Nik bai igerri nor den egarri.

–Hiru eta hiru sei, hiru bederatzi, hamar hemeretzi, batekin hogei, beste hainbesterekin berrogei.

–¿Qué dijo el cura de Obanos? Bebamos. ¿El de Eriz? Edan dezagun berriz. ¿El de Larraga? Edan zagun barra-barra.

–Mus, kartak ikus.

–Ole, Pilili, holan ez ibili, ole morena, mozkorra da txarrena.

–Osasuna eta pakea, lapiko ondo betea, ardo zaharrekin betea.

–Otxandiora tirri-tarra; hik uzkarra, nik sagarra, tela-puntan, zorri zaharra.

–Patxi, kaka egin eta bertan itxi.

–Rau-rau-rau, sardina bakalau; daukanak jaten dau.

–Tira ta tira: aurtengo nire uzkarrak guztiak zeuretzat dira.

–Ze barri da munduan? bakoitza bizi dela bere moduan.

–Zelan duzu izena? Okela gizena, Juaniko barra zuzena.

–Aizak hi, txapel gorri, nola duk izena? Etxean txotxoko ta kanpoan gizena.

–Zer da berri? Iaz hil zena aurten ez dela ageri.

–Zu beti ero, hotz ez dena bero.

–Egunon, zeinek emon? Jaungoikoak emon.

–Gizonak ekin, eta Jaungoikoak egin.

–Jose: jan da bera gose, edan ta bera egarri; Jose barregarri.

–Apaizak belarra ebaki, eguraldi txarra seguraski.

–Arabarra tirri-tarra, hik uzkarra, nik sagarra.

–Bete betean, Peru atean.

–Errege berri, lege berri.

–Joakin, hi noiz hilko haizen guk ez jakin.

–Marixe eta Peru bitxi, hasarre direnean diru gutxi.

–Hor konpon, Mari Anton; txakurren buztanak begiak on.

–Arre burro kondenao, aurrera joan behar ta hemen hago.

–Asto nola, uzkerra hala.

–Axeri, oiloen predikari.

–Bee! ahuntzak adarra me. Bee!

–Bene benetan, katua berbetan.

–Edonon dagoz txakurrak haginak zabalik.

–Kukuak maiatzean kuku, uztailean mutu.

–Luki zaharra beti goiztar.

–Mari gorri, bihar eguzki ta etzi euri.

–Oilo gosea kantari, neska gosea dantzari.

–Okila kantetan, euria atetan.

–Zorriak nor du laguna? –Bartza, jauna.

–Aharrausia ahorik aho, katamixarra pagorik pago.

–Egia, sudurraren ondoan begia, ha baino gorago bekoki zabal handia.

–Galdua, zure aurpegiko narrua.

–Lepoa moztu ta txapela eseri.

–Kito! ahuntza larrean ito!

–Hobe da gutxi izan eta kito, ez asko nahi eta zorrez ito.

–Ito! Hondoa jotzeari, hil. Hondora joateari ito. Kostan kostako lez berba egin, eta kito!

–Atso bat hil, eta beste bat ito.

–Hoa, hoa oloitegitik, Luki barrabasa!

–Klaro!
–Zaldia ez bada, asto; garia ez bada, lasto.
Debatik gertu, Mendaro.

Patxi,
taloa jan
ta ipurdia
itxi.

Hasiak egina dirudi
eginak urregorri.

–Zelan dagoz garixak?
–Giputzak, jauna, giputzak.
–Giputz labaina, giputz uger huts.

Gizon hotza, etxerako lotsa,
gizon epela, lanean ergela,
gizon beroa, zerbaiten esperoa.

–Getariko kalean, iskina batean, hiru kaka-mokordo erreal batean.

–Gure kanpaiak ez du ikasi latin, baina ederki jotzen du talantan-tilintin.

–Tilin-talan, tilin-talan! Quisiera un poco pan!

–Tan-talantan! tan-talantan! ebakita jan! ebakita jan!

–Dilin-dandalan! dilin-dandalan! bisigua saltsan, bisigua saltsan!

–Talan! talan! talan! eman! eman! eman!

–Etxean ez dago inor!
–Señora!
–Horrela ez goaz inora!

–Neure begiz ikusia, katuaren ondoan odolkia.
–Benetan?
–Katua eta sagua berbetan.
–Egia?
–Katuaren belarrian egin du saguak habia.
–Serio?
–Saguak katuari horzka egin dio.

Kutxi, kutxi,
baba asko,
ta urdai gutxi,
abadeari etxean
ez sartzen utzi.

Urte barri barri
daukonak eztaukonari
nik eztaukot eta niri
emoten eztaustana...
txarri-belarri!

Lehenengo, osasuna.
bigarren pakea.
Bizitzeko on dira
bata eta bestea,
baina diruak lasaitzen du
Petirisantsen sabelea.

Asto zaharrak
indarra urri,
lakia ugari
eta putza sarri.

Jolasak

Din-dan balendan,
elizako atetan,
gizon bat dilindan.
–Zer egin du?
–Bekatu!
–Emaztea urkatu?
–Hori ez da pekatu!
–Txakurra zanpartu?
–Hori da, hori, pekatu!

Din dan.
Nor hil da?
–Pedro zapataria.
–Zer egin dau?
–Pekatu, auzoko txakurra urkatu,
txitxalopean beratu,
tela gainean zikatu.
hori ez da bekatu.
enterretan daroela
kakarraldoak uxatu.

–Din-don!
–Nor hil don?
–Peru zapataria.
–Zer egin du pekatu?
–Auzoko txakurra urkatu.
–Hori ez don pekatu.
–Ostiralean koipatsu.
–Horixe don pekatu.

–Maria goikoa.
–Zer duzu behekoa?
–Zatoz iturrira.
–Baina ezin etorri.
–Zer duzu ba?
–Senarra etorri.
–Zer ekarri?
–Zapata ta galtzerdi.
–Zer kolore?
–Zuri eta gorri ta kikirriki!

Arre, arre, mandako,
bihar Iruñarako,
etzi Tafallarako.
–Handik zer ekarriko?
–Zapata eta gerriko.
–Haiek zeinentzako?
–Etxean dagoenarentzako.

Katalin-Matalin, Kattin-Mattin
titarako, al denean triparako,
sobratzen jatzuna kutxarako.

Kyrie eleyson
lapiko baten
hiru gizon.

Itsuak ikusi du
etxea erretzen
hanka-motzak badaki
bideak korritzen;
mutua deadarka
jendeari deitzen
gorra ere han zegoen
guztiak aditzen.

Xanko manko
berria franko,
ona bada
etxerako;
txarra bada
kanporako.
Hau esanda gero
turruturru
horrentzako.

Drakian-dran!
hamalau frailek eta hiru andrak
ai, zer afaria genuen bart!
jan genuen eper bat.
(... ... ...)
Drakian-dran!
hamaika karga ardo zuri,
hamar karga ardo gorri,
bederatzi zezen buru handi
zortzi zaldi buztan gorri,
zazpi behi eta sei ahari,
ta bost antzar,
ta lau oilo ta hiru uso,
ta tortoilo bi, ta eper bat:
drakian-dran!
hamalau frailek eta hiru andrak
ai, zer afaria genuen bart.

Honek eta honek eta honek
bart eztaiak zituzten,
honek honi zer esan,
gonbidatzeko hau eta hau,
gonbidatzaile hau eta hau,
hona non diren hogeita lau.

Hau eta hau ezkondu
hau ta hori konbidatu.
Honek eta harek esan dutela
ez dela hau ta bai dela hau
hemen ez badaude hogeitalau
Pantxikoari (...ri) kokota pikau.

Zenbat diren hamar diren
zenbat diren ikusi
oiloak kakaritzen eta
oilarrak ari ikasten.
Xakurtxoa josten eta
arratoitxoa laietan.
txinurria berriketan,
kakalardoa ametsetan.
eperra nabo
idia dantzan
astoak danbolina jo.

Bat hori zan alkate jauna,
bestea errejidorea zan,
hirugarrena... ez esan... bai esan...
herriko erretore jauna zan,
hura zan, bera zan, hala zan,
herriko erretore jauna zan.

Nik ikusi dut Holandan sagua mandora
igotzen
arratoia pausatzen
katua argi egiten
harriturik egon nintzen
haiek nola ziren konpontzen.

Pater noster
txanpona laster,
zulora laster
opila laster.

Txantxin kapotxin
hator etxera Matxin,
taloa zegok adarrean,
bere aulkitxo nabarrean,
katua zapaian gora ta behera,
bere bost umeak ondoan dituela:
aitak afaririk eman nahi ez,
amak txitxirik eman nahi ez:

Mau,mau,
mimirrimi mau,
Matxin alproja hori
katuak jango hau!

Ni nauzu Martin
eta zu zara Kattalin:
atea ireki ezazu
barnera sar dadin.

Kuku miku
txantxa perro,
kastellano, plin-plon,
ikusi nuen erbie,
gari sailaren erdien.
Egin zuen putz,
esan nion: Santa Krutz,
erretorearengana,
aide! segizuz.

Neure kriau txoritxe,
zeuk esan zenidan egixe:
arratsean ikusiko nuela
dantzan neure emazte marixe.
ai, oi, ai, egixe,
zeuretzat kortan dagoen zaldi zurixe...

–Uso zuri ederra
zeruan zer berri?
–Zeruan berri onak
orain eta beti.

Goizean lo
egunez egon,
gauean alfer,
zorraren koska
etxean laster.

Peru tabernan,
Marixe jokoan,
berriz ere egongo dituk
linaiak zokuan
eta praka zaharrak kakuan.

Joan nintzen joan nintzen montera
monte zela mendia
ikusi nuen ikusi nuen
pajaro zela txoria
tiratu nion tiratu nion
piedra zela harria,
atera nion, atera nion
odol sangre gorria.

Pin-pin txoria
txori papo gorria,
jan jan koinata
txori saltsa on bat da.

Osasuna eta bakea,
lapiko ondo betea,
andre galanta eta dotea,
askoren amesetea.

Eskola mutilak
da saririk sasi,
asko jan
eta gitxi ikasi.

Sorgin esaldiak

In nomine patrika
Aragoeko Petrika
Lapurdiko Joanikot
eman elkarri pot.

Mundua mundu deno
eta garanoa garano
sorginak sorginari hi ta no.

Mirri-marrau
higi hadi, liburu hau.

Ardoila-mardoila,
kinkuran kin,
portera ziria
portera min,
deabru guztien
laguntzaikin
honexen gogoa
nahi diat jakin.

Atxia motxia perolipan
egur idorra ipurdian
baga ta biga airean
biribilika ortzazpian
haizerik haize lurretik at
goazen biak ziztuan.

Xirristi mirristi
gerrena plat
olio zopa
kikili salda
urrup edan edo klik.
ikimilikiliklik.

Harriola, marriola
kinkuran-kin,
portera ziria, portera min,
xera, mera, kirun, karun, plet.

–Baga, biga, iga , laga, bega, sega, zagi, zogi,
bela, arma, tiro, punp.

–Sarian zunzun, sarian zunzun, sarian zunzun
zena;
laun kirinkun, laun kirinkun, laun kirinkun
zena.

Mari-kriskitin
Mari-kriskiton
adizue ene errana
Zugarramurdiko Graziana
Senpereko Joana

Hondarribiko Martina
Olagueko Ana
zuen eskuen indarrez
ilunpetik ekarri ama.

Xirristi-mirrixti, gerrena plat,
olio-zopa, kikili salda,
urrup, edan edo klik
ikimilikiliklik**!**

–Harriola-marriola, ardoila-mordoila; arrela-marrela, terrela-merrela; argala-margala; arla-marla, arrabila-bila, arrengula-perrengula.

Ardoila mordoila, kinkuran kin!
arrela marrela, zertzelin!
terrela-marrela, kin-kun-kin**.**
Ordu bat harako
ordu bat horrerako,
ordu bat honako
hodeien petik,
sasien gainetik
eta frist!

Harriola-marriola
orratza zorrotza
xista gaitza
harri txarra
tira-bira
zirrin-zarran
eta zart**.**

Hatzamarrekin lagundurik errezitatzeko

Zenbat diran hamar diran zenbat diran ikusi, oiloa kakaritzen da, oilarrak ari ikasten, txakurtxoa josten eta, arratoitxoa laietan, txinurria berriketan, kakalardoa ametsetan, eperra nabo, idia dantzan, astoak danbolina jo. Honen erdi-erdian zorria barrez itotzen.

Haur kantak

Obabatxua lo eta lo
zuk orain eta nik gero
zeuk gura dozun orduren baten
biok egingo dogu lo.

Obabatxua lo eta lo
zuk orain eta nik gero
mutil handia haziko zara
loloak eginez gero.

Obabatxua txingorrin gorri
ez egin lorik basoan
azagariak jan ez zagizan
bildotsa zaralakoan.

Obabatxoa lololin
zu zara nire poxpolin**,**
danbolin eta gaitea
zu zara neure maitea.

Bibliografia orokorra

ALDEKOA, I. 1993. *Euskal ipuinen antologia bat*. Alberdania. Irun.

ARRATIBEL, J. 1980. *Kontu zaharrak*. Ed. Erein.

BARANDIARAN, J. M. DE. 1973. *Eusko folklore*. Ed,. La Gran Enciclopedia Vasca.

–*Obras completas de Don José Miguel de Barandiarán*, II. alea. Bilbo. 1973

BENGOETXEA, X. 1986. *Euskal ipuinak*. Iturriaga saila, Erein, San Sebastian.

CALLEJA, S. 1995. *Basajaun, el señor del bosque. Cuentos y leyendas populares vascos*. Gaviota. Madrid.

CAMARENA, J. eta CHEVALIER, M. 1995. *Catálogo tipológico del cuento folclórico español*. Gredos. Madrid.

DUESO, J. 1997. *Cuentos y leyendas de la Euskal Herria fantástica* I, II, III... Roger. Donostia-San Sebastián.

RODRÍGUEZ ALMODOVAR, A. 1984. *Cuentos al amor de la lumbre*. Anaya, Madrid.

VINSON, J. 1998. *Literatura popular del País Vasco. Tradiciones, leyendas, cuentos, canciones, adivinanzas, supersticiones*. Txeroa. Donostia-San Sebastian.

Antropologi ikerlanak

APALATEGI BEGIRISTAIN, J.M. 1987. *Introducción a la historia oral. Kontuzaharrak*. Anthropos, Editorial del Hombre. Barcelona.

AZKUE, R. M. 1959. *Euskalerriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco. Cuentos y leyendas*. Espasa-Calpe. Madrid.

LEKUONA, J. M. 1982. *Ahozko euskal literatura*. Erein. Donostia.

PROPP, V. 1974. *Las raices históricas del cuento*. Fundamentos. Madrid.

PROPP, V. 1985. *Morfología del cuento*. Akal. Madrid.

Literatura ikerlanak

BRAVO VILLASANTE, C. 1978. *Historia de la Literatura Infantil Universal* (2 ale) Almena, Madrid.

CALLEJA, S. eta MONASTERIO, X. 1998. *La literatura infantil vasca. Estudio histórico de los libros infantiles de euskara*. Ediciones Mensajero, Universidad de deusto, Bilbao.

RAMOS. R. A. 1998. *El cuento folklórico: una aproximación a su estudio*. Pliegos, Madrid.

Pedagogi ikerlanak

BRYANT C, S. 1995. *El arte de contar cuentos*. Biblaria. Navidad Bilduma. Barcelona.
CERVERA, J. 1985. *La literatura infantil en la Educación básica*. Cincel-Kapelutz, Madrid.
PELEGRIN, A. 1982. *La aventura de oír (Cuentos y memoria de tradición oral)*. Cincel, Madrid.
RODRÍGUEZ ALMODOVAR, A. 1985. *Para una pedagogía del cuento popular*. *Apuntes de educación*, 17. zk., apirila-ekaina, Madrid.

Ikus-entzunezko materiala

JIRA-BIRA 1-2-3-4 ipuinak. (Kasetak). Ibaizabal argitaletxea.
KOLDO AMESTOI KONDALARI. (Kasetak.1-2). Behin bazen Euskal herrian. IZ estudioa.
BAZEN BEHINGO IPUINAK. (Kasetak. 3-4). Eder Track estudioa.
BEHIN BAZEN. Koldo Amestoi / Bizente Martinez. (Kaseta).
KONTU-KONTARI programa. Canal Bizkaiak egina. (bideoak).